

Berrigarria

2.605

LEGEALDIKO AZKEN UDAL AURREKONTUA

milioi

MARKIEGI
autoak

Leizeaga 1 (San Lorenzo Industri Poligonoa)
BERGARA Tf 943 76 35 09 Faxe 943 76 56 76

FIAT Alfa Romeo



FIAT PUNTO

1.190.000

pezetatik aurrera

Mariaren Lagundia Ikastola



200 URTE BERGARAN
HEZIKETAREN ZERBITZUAN

*Haur hezkuntzarako,
Lehen Hezkuntzarako*

*eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako
aurrematrikulazio epea otsailaren 1etik 12ra*

Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1. Tf. 943 76 25 40. Matrikula orduak, 9:30-13:00 eta 16:30-18:30

ESKAINTZA

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)
- Heziketa Zikloak
 - Osasuna (Sanitarioa)
 - Eskaintza Soziokulturalak eta Komunitatearentzakoak
- Bestelako zerbitzuak
 - Jangela
 - Eguerdian hartzaindegia
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Psikologia zerbitzua
 - Eta abar

UGARTE

AROSZTEGIA



ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.
Telefonia eta faxa: 943 76 54 91

Osasun integrala

Gerardo Mondragon / San Xosepe jubilatuen elkarteko presidente ordea



Askotan entzun izan dugu eta oraindiko ere entzuten dugu osasuna, dirua eta maitasuna direla bizi-kalitatearen hiru zutabe nagusiak. Aukeran emango baligute, gutariko askok osasuna aukeratuko genuke lehenengo. Osasunaren Mundu Erakundearen esanetan, osasuna hitzaren barruan hiru kontzeptu hauek batzen dira: ongizate fisiko, psikiko eta soziala.

Osasun ona izatea eta ongizate maila egokia eskuratzea gazte nahiz helduen helbururik gogokoenetakoa da. Dena den, sarritan helburu urrun eta eskuragaitz samarrak iruditzen zaizkigu.

Horren ganean dihardugula, beharbada gutxietsi egiten dugu osasuntsu egote horretan norberak jokatzen duen papera; izan ere, geure jarrerak, giza harremanek eta pentsamendu edota sentimenduek lagundu egin dezakete amestutako ongizate hori lortzen, azken finean, ongizatea norberaren bizi-moduarekin pozik egotean datza eta.

Hori dela eta, seguru asko baliagarria izango zaigu geure "makineria" zaintzearen garrantzia ezagutu eta onartzea. Horretan zerikusi handia dute elikadura egokiak, ariketa fisikoak eta burua argi mantentzeak. Zizeronek zioen bezala: "adimena eta oroimena lantzen dituenak hil arte jarraitzen du gazte izaten".

Jakin badakigu, gainera, ezinbestekoa dela baikorra eta irekia izatea eta horretaz gain, bestelako giza taldeekin lankidetzeta eta partehartze izpiritua izatea, faktore horiek guztiek "elikatu"

"Jakin badakigu, gainera, ezinbestekoa dela baikorra eta irekia izatea eta horretaz gain, bestelako giza taldeekin lankidetzeta eta partehartze izpiritua izatea"

egiten baitituzte osasunaren hiru zutabeok.

Era berean, bazterrezinak dira alde izpirituala, orekatzaile egokia, etengabeko hausnarketa eta barne bizitzaren aberastasuna, "bizitzen jakitearen" osagai oinarri-oinarrizkoa.

San Xosepe Jubilatuen Elkartek gai hauen inguruko hitzaldi-ziklo bat antolatuko du. Gai horietan sakondu eta hausnarketa, bakarkakoa nahiz taldekakoa, eragitea da zikloaren helburua. Horretarako, tailerrak antolatuko dira, ideia horiek guztiak modu praktikoago baten ikusi eta eguneroko bizimoduan zela eroan daitezkeen aurrera azaltzeko.

Zikloa otsailaren 17an hasiko da, arratsaldeko bost eta erdietan, San Xosepe Elkartearen egoitzan eta maiatzerrate luzatuko da. Hilero-hilero hitzaldi eta tailer bana egongo da. Elkarteko Zuzendaritza batzordeak jubilatutako guztiak gonbidatzen ditu bertan parte har dezaten. **B**

barruan



Anaje Narbaiza

"Baietz" fundaziokoa

"Gara egunkari berrian jendeak hilabeteotan erakutsi duen ilusioa islatuko da"

8.



Axen Garitano

Pirena lasterketan

"Pirena lasterketan politena norberak hezitutako txakurrekin lehiatzea da"

21.



Karlos Lasa

LAM 3 enpresakoa

"Futboliña da nere makiñarik gustokuena; gutxien gustatzen jatena, txanponjalia"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1967. Urtarrilaren 29an Gazte-luk debutatu zuen Realean, Algeciras taldearen kontrako Kopako partidu batean, Andoni Elizondo entrenatzailea zela. 307 partidu jokatu eta liga bat irabazi ondoren, 1980an laga zion futbolari.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1766. Urtarrilaren 27an Irun eta Hondarribia banandu egin ziren.
1766. Urtarrilaren 29an Manuel Larramendi euskaltzalea hil zen.
1865. Urtarrilaren 26an Sabino Arana Goiri jaio zen Abandon.
1875. Urtarrilaren 30ean itsas azpiko kable batek Santander, Bilbo eta Donostia komunikatu zituen.

MUNDUAN GERTATUA

1947. Urtarrilaren 25ean Al Capone, Chicagoko gangsterrik ospetsuena, hil zen.
1973. Urtarrilaren 27an Ipar Vietnam eta Estatu Batuen arteko su-etena sinatu zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 22
 6-11-23-34-41-49 (osag.37/itz.1)
Astelehena 25
 6-8-27-30-31-39 (osag.34/itz.2)
Martitzena 26
 1-16-18-28-39-45 (osag.15/itz.8)
Eguaztena 27
 8-11-13-35-48-49 (osag.9/itz.5)

PRIMITIVA


Zapatua 23
 10-24-28-37-43-44 (osag.3/itz.7)
Domeka 24 Saritzarra
 2-8-9-14-26-44 (osag.15/itz.9)

ONCE

Eguakitza 22: 73.041 (023 seriea)
Astelehena 25: 58.367
Martitzena 26: 42.371
Eguaztena 27: 93.323





Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan urdinguneak eta ho-deiak tartekatuko dira zeruan. Temperaturak behera, eta gauez izotza egingo du. Domekan euria egin dezake eta goietan elurra. Temperaturak behera egingo du. Haizeak iparrekialdetik joko du arin.

Ilargiaren aldiak

-  Ilgora: urtarrilak 24
-  Ilbete: urtarrilak 31
-  Ilbehera: otsailak 8
-  Ilberri: otsailak 16

Eguzkia

Domeka, urtarrilak 31



Sortu: 08:30



Gorde: 18:35

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 21	12	1	-
Eguakitza 22	13	2	-
Zapatua 23	16	0	-
Domeka 24	17	0	-
Astelehena 25	19	1	-
Martitzena 26	12	2	4,2
Eguaztena 27	11	5	20,7

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Anpolaixa

1. Gerezi mota eder bat, estimatuena agian. Anpolai gorrixa, zurixa eta beltza bereizten dira.



JOSU OKINA

2. Antzinan okaran arbola basatiei, basokanei esaten zitzaien.

hamaika ikusteko jaio ginen!

Gela robotizatua

Zaintzaileei laguntze aldera, Tokioko Unibertsitateko Sato profesoreak gela robotizatua sortu du. 210 sensoreren eta sabaian dauden hamar kameraren bitartez, pazientearen arnasketa zaindu daiteke eta ohean duen kokapena aldaerazi; horrela, gaixoak hala behar balu, ohean duen jarrera aldarazi egingo lioke robotak. Gainera, nahi beste objektu eskura diezaiokoe gaixoari.

Farmaziak

Eguakitza 29:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Zapatua 30:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Domeka 31:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Astelehena 1:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Martitzena 2:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 65

Eguaztena 3:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Eguena 4:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Ogia

Domeka 31: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 53
Gurutze Gorria	943 76 55 78
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 45 63
Udaltzaingoa	943 77 91 18
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 17
Antzuolako medikua	943 76 62 13

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 37
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 18 53
RENFE	943 28 55 63

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 33
Igerilekuak	943 76 20 57
Kultur Etxea	943 77 91 53
Liburutegia	943 77 91 63
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 63

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 33
Erregistroa	943 76 13 63
Jardun	943 76 36 63
Jubilatuen Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 25 63

zorian agurrak



Leire Zabaleta
Urtarrilaren 30ean
11 urte.
Urte askotarako!
Ama.



Olatz Sanz
Otsailaren 2an
5 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak.



Alberto Herran
Otsailaren 1ean
31 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Anartz Garzia
Otsailaren 1ean
7 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak eta
lagunak.



Judith Lizarralde
Urtarrilaren 29an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ixabel Arejolaleiba
31n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Naiara, loritz, Ander
eta senarra.



Jose Mari Etxaniz
42 urte. Urte askota-
rako eta laster
etxean! Izeba eta
lehengusinak.



Leire Iruin
Otsailaren 1ean
14 urte.
Urte askotarako!
Aitor.



Erkuden Unamuno
Otsailaren 4an
26 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Peio Alfaro
Urtarrilaren 30ean
6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Jokin.



Martin Casado
Urtarrilaren 29an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ander Arazkonaga
Otsailaren 3an
10 urte. Urte askota-
rako! Familia,
Nerea eta Oihana.



Ane Zabaleta
Urtarrilaren 30ean
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Itsaso Goenaga
Urtarrilaren 30ean
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jokin Etxabe
Urtarrilaren 3an
5 urte. Urte askota-
rako! Aranzabal
familiakoak.



Beñat Etxabe
Otsailaren 3an
5 urte. Urte askota-
rako! Aranzabal
familiakoak.



Puri Laskurain
Otsailaren 3an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ahizpa eta familia.



Arantxa Ortiz de Zarate
30ean urteak Zen-
bat? Urte askotara-
ko! Kiroldegikoak.



Agurtzane Crespo
Otsailaren 4an
18 urte. Urte askota-
rako! Lagunak eta
etxeokak.



Xabi Etxaniz
Urtarrilaren 31n
26 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eli Basuri
Urtarrilaren 30ean
49 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak eta
goiko bizilagunak.



Aritz Rubio
Otsailaren 4an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxeko denok.



Ana Dianguren
Urtarrilaren 29an
6 urte. Urte askota-
rako! Aita, ama
eta Aitor.



Mireia Larrañaga
Otsailaren 2an
6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Julen.



Argiñe Zurutuza
Urtarrilaren 30ean
29 urte. Urte askota-
rako! Koadrilako-
ak eta Lorea.



Nagore Eguren
Otsailaren 3an
25 urte.
Urte askotarako!
Familia.



Larraitx Mendikute
25 urte. Urte askota-
rako! Mikel,
Garazi eta etxeokak.



Aintzane Larrañaga
Otsailaren 3an
25 urte. Urte askota-
rako! Mikel, Gara-
zi eta etxeokak.



Ekaitz Irazola
Otsailaren 4an
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Etxezarreta
Urtarrilaren 29an
11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Unai Irizar
Urtarrilaren 29an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nagore Irazola
Urte askotarako!
Etxekoak
eta behekoak.



Potoli
Otsailaren 1ean
urtebete. Urte askota-
rako! Ana Mari,
Silvia eta Marisa.



Ibon Etxabarri
Urtarrilaren 29an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

ESKER ONA

Juli Gallastegi Maiztegi

Bergaran hil zen
1999ko urtarrilaren 13an,
89 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei
eskerrik asko iloben izenean.*

jaiotakoak

BERGARA

Susana Moral Rodriguez

Urtarrilak 11

Andoni Elortza Garitano

Urtarrilak 15

Mikel Larrañaga Azpiazu

Urtarrilak 16

Olatz Azkarate Madinabeitia

Urtarrilak 17

Jon De La Rosa Otaño

Urtarrilak 21

hildakoak

BERGARA

Maria Gallastegi Gallastegi

Urtarrilak 20, 70 urte

Julian Azkarate Elexpuru

Urtarrilak 23, 80 urte

ANTZUOLA

Vicente Igarza Iñarra

Urtarrilak 24, 88 urte

*Hurrengo alean, Berrigara 354,
OTSAILAREN 5a eta
OTSAILAREN 11
BITARTEKO pertsonen
zorian agurrak bakarrik
argitaratuko dira.*

ANTZERKIA

► **"Desperrados"**, Ados Teatroa taldearekin gaur, eguakitz, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Joseba Tapia eta Koldo Izagirre**ren "Apoaren edertasuna" kantakizuna eta kontakizuna gaur, eguakitz, 22:30etan Sorraluzeko zineman.

► **Gari** bihar, zapatua, 22:30etan Azkoitiako Baztartxo antzokian.

► **Jazz kontzertua** eguaztenean, otsailak 3, 21:30etan Sorraluzeko Gaztelupen D. Mengual (kontrabaxua), V. Celada (bateria) eta J. Urrutia (pianoa).

► **Jose Luis Otamendiren** "Bakarrik bahago neguan" otsailaren 4an, 21:30etan Gaztelupen. Otamendi poesiak errezitatzen, Labrit Zabala pianoa, kitarra eta kantuan eta Imanol Ubeda kitarra eta kantuan.

ERAKUSKETAK

► **Dani Laskurainen** margoak Nahikarin.

► **Ramon Aranzabalen** margo erakusketaren inau-

KONTZERTUA

The Elevators, The Young Ones eta Freak XXI


Noiz: gaur, eguakitz, 23:00etan
Non: Jam aretoan
Sarrera: doan

Bergarako ikasleek gaur ospatzen duten Santo Tomas eta San Juan Boscoren omenezko jaiegunak musikarako tartea ere izango du. Freak XXI katalanek The Elevators eta The Young Ones bergarar taldeekin batera joko dute Jam-en. Joan zen urtean The Elevators eta Assholes taldeek aurreneko aldiz jo zuten jendeaurrean Pol-Polen; gaur, oster, orduan baino ikusle gehiago izango dute ziurrenik Amilagako aretoan. Mikel Larrañagak (kitarra eta ahotsa), Kepa Eguren (bateria) eta Aitor Lizarralde (bajua) osatzen dute The Elevators. Hiruzpalau urte daramatzate elkarrekin eta rock & roll azkarra jotzen dute, The Stooges, Kim Salmon, Bos Hog, Buzzcocks, T-Rex edota Pixies taldeen bertsioak eginez.

Estatu Batuetan izen bereko talde bat zegoela-eta, Assholes-ekoek beste izen bat hartu dute: The Young Ones. Taldeki-deak lehengo berberak dira: Aitor Borobia (ahotsa), Unai Azkarate eta Aitor Aldanon-

do (kitarra), Andoni Aperribai (bajua) eta Mikel Moñux (bateria). Punk rock estiloko musika egiten dute eta gaur The Clash, Radio Birdman, Burning edota Ramones taldeen abestiak joko dituzte bere jarraitzaileen aurrean.

Kontzertuari amaiera emateko Freak XXI katalanek taularatuko dira. Ktulu taldea desegin ostean sortutakoa da eta egunotan laister hasiko duten jira gertatzen izan dira Jamen. Hard-rock estiloa jorratzen dute eta lehengo esperientzia ikusita, ezin esan jarraitzaileerik ez daukatunik.



The Elevators (argazkian) eta The Young Ones, gaur Jamen.

gurazioa eguakitzean, hilak 5, 19:30etan Kultur Etxean.

IKASTAROAK

► **Arrasateko Gazte Zerbitzuak** honako ikastaroak antolatu ditu: alboka

(zapatu goizetan), txalaparta (eguakitz arratsaldeetan, 8etan, eta zapatu goizetan), euskal dantzak (gaztetxoen zat eguaztenean eta 15 urtetik gorakoentzat ostiraletan) eta gaur egungo dantza eta dantza jazz ikastaroa (zapatu arratsaldeetan).

Argibideak eta izen-ematea 943 77 00 65 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artakale 6 Tf.: 943 76 13 29

lehiaketa deitu du. Lanak aurkezteko epea martxoaren lehen bukatuko da. Argibideak: 943 76 26 99.

DEIAK

► **Amnistiaren Aldeko Batzordeak** eta Senideak deituta, presoek euskal herriratzeari buruzko bilera gaur, eguakitzan, 19:30etan UNEDen.

► **Gara egunkariaren** kaleratzea ospatzeko jaia bihar, zapatua, 19:00etan Plazan. Bertsolariak, dantzariak, diru bilketaren azalpena edota Egin itxi zuteneko bideo proiektzioa. Bildutakoekin artean txorizoa eta gazta banatuko dira.

► **Pazkuetako Bideberriko kontzertuak** antolatzeke bilera martitzenean, otsailak 2, 19:30etan Kultur Etxean. Antolaketan parte hartu nahi dutenei eta Bideberri jo nahi duten herriko taldeei bilerara joateko deia egiten zaie.

► **Korrika Batzordea** osatzeko bilera eguaztenean, hilak 3, 17:00etan Kultur Etxean.

► **Bergarako Orfeoiaren urteko batzar orokorra** eguenean, hilak 4, Zabalotegiko lokalean. Lehen deialdia 20:30etan eta bigarrena 21:00etan.

► **Txino jokoaren txapelketa** datorren eguaztentean, otsailak 5, 23:00etan Aralar tabernan. Izen-ematea ordubete lehenago egin beharko da (300 pezeta partaide bakoitzeko).

OHARRAK

► **Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak** (HHI-EPA) 1998-99 ikasturtearen bigarren lauhilabeterako matrikula epea zabalik dagoela jakinarazten du. Argibideak eskolan bertan edo 943 76 44 52 telefonoan.

► **Udalak jakinarazi nahi** du trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztentean pasatzen dela. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira.

JAIK

► **San Blas eguna** eguaztentean, otsailak 3. Goizeko 11etan Meza Nagusia eta opilen bedeinkaketa San Blaseko ermitan. Ondoren, bildutako jendearen artean salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira.

KINTADAK

► **1973koen** bazkaria otsailaren 6an Antxonin. Izen-ematea bertan (1.500 pezetako depositoa).

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Juegos salvajes

Eguakitzan: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Estacion Central de Brasil

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Nada en la nevera

Eguakitzan: 22:00.

Very bad things

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Estado de sitio

Eguakitzan: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztentea, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

54

Eguakitzan: 22:15.
Zapatua: 19:00, 22:15.
Domeka: 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

AZKOITIA. Baztartxo

Algo pasa con Mary

Eguakitzan: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

ELORRIO. Arriola

La mascara del Zorro

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

El hada novata

Domeka: 17:00.

Hamman, el baño turco

Eguena, zine-kluba: 20:15.

JUEGOS SALVAJES

Zuzendaria: John McNaughton.

Aktoreak: Matt Dillon, Kevin Bacon, Neve Campbell.

Kelly Van Ryan (Denise Richards) erakargarriari *Sam Lombardo* (Matt Dillon) Blue Bayko irakaslea asko gustatzen zaio eta, seduzitu nahian, bere etxera sartzea lortuko du. Hurrengo egunean Kellyk Samek bortxatu egin diola esango du eta *Suzie Tollerek* (Neve Campbell) ere bortxatzailetzat joko du Sam. Iker-tzaileek ez dute lan erreza izango kasu honekin...

ESTACION CENTRAL

Zuzendaria: Walter Salles.

Aktoreak: Fernanda Montenegro, Vinicius de Oliveira.

Berlingo Jaialdian sari nagusia, Donostian publikoaren saria edota Urrezko Globo eskuratu dituen filmea. Idazten ez dakitenei kartak idazten dizkien erretiratutako irakasle batek bere ama galdu berri duen mutil bat ezagutuko du. Brasilgo lurraldeetan zehar bidaia bati ekingo diote mutilaren aita topatzeko.



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

Bihar, zapatua, Gara egunkaria kaleratuko da. Egin itxi zutenean Bergaran ere egunkari berriaren proiektuaren aldeko batzorde bat eratu zen. Guztira 17,4 milioi pezeta batu ditu herriari. Jasotako erantzuna eskertu nahirik, jai txiki bat izango da bihar 19:00etan Plazan.

G. Zein izan da herriko batzordearen zeregina?

E. Proiektu berri hau aurrera ateratzeko behar zen dirua eta behar ziren baliabideak eskuratzea. Euskal Herri mailan 1.000 milioi pezeta lortzeko erronka zegoen, jendeak ikusi ezin zuen produktu baten alde gainera. Zabaldutako den mezu zera izan da: Eginen ordezko egunkari bat beharrezkoa zela eta ordezkatu hori gizarteak emandako errefrendoaren bitartez etorriko zela. Uste dut maila handi batean lortu dela gizartearen ongarria hiltzea eta dirua biltzeko erabili diren baliabideek hori adierazten dutela. Bergaran ere lan bikaina egin da eta oso ideia onak egon dira: tonbolarena (gauzak emateko orduan eta parte hartzeko orduan jendeak primeran erantzun du), merkatu txikiarena ere gauza diferente bat izan da (badakigu zein zaila den gaurko gizartean gauza berriak ateratzea), talogintza, Beartekoekin egindako erakusketa, Pol-Polen egin zen kontzertua eta beste hainbat. Gabonak tartean fetxak ez dira oso aproposak izan baina jendeak erakutsitako borondatea eta talde lana azpimarragarriak dira benetan. Guztira, 300 lagun inguru bildu dira batzordearen inguruan eta jende horri eskerrak eman behar zaizkio. Ez bakarrik diruz lagundu dutenei, baizik eta

ANAJE NARBALZA
Baietz fundazioko kidea

“Gara egunkari berriaren jendeak erakutsitako ilusioa islatuko da”



Anaje Narbaizak herri mailan "Gara"ren alde egin den lana goraiatu du.

dirua batzeko eta giro hori lortzeko kolaboratu dutenei ere bai.

G. Balorazioa guztiz positiboa izango da, beraz...

E. Bai, aparteko esperientzia izan baita. Edozein gauzetarako dirua eskatzen lehenengo proiektuan sinistu behar duzu eta, bestalde, eskatzeak ez dut esango lotsa ematen duenik baina

“Biztanleak 2,5 milioi izanda, mila milioiko proiektua aurrera ateratzean, herri honek izugarritzko indarra duela erakutsi du”

jendearen erantzunaren menpe zaude. Oso erantzun positiboak jaso ditugu eta bakoitzak ahal izan duenarekin lagundu du. Hasieran pentsatutakoa baino erantzun hobea jaso dugu, hartuta nago jendeak proiektu honi eman dion erantzun hain positiboarekin.

G. Zenbat akzio saldu dira Bergaran?

E. Salduetako akzioak 172 izan dira Bergaran eta horretaz gain, epez kanpo diru gehiago jaso dugu. Akzio bakoitzak 100.000 pezeta balio zuen eta pertsona batek baino gehiagok hartu dute parte akzio bakoitzean. Denera, 600 pertsonen aportazioak izan direla kalkulatu dugu. Guretzat lan erreza izan da, jende askok hartu duelako akzioak betetzeko ardura eta guk koordinazio lana besterik ez dugu egin behar izan, banan-banan eskatzen ibili beharrean.

G. Euskal Herri mailan ere hasieran pentsatutakoa baino gehiago batu da.

E. Bai, badirudi 1.200 milioi jaso direla. Edozein modutan zapatuan, hilaren 30ean, Martin Garitanok berak datu horiek zehatzago azalduko ditu Plazan. Egin den lan guzti hori eta eman den aportazioari erantzun bat eman beharrean gaude eta horretarako jai txiki bat antolatu dugu zaturako. Datuak azaltzeaz gain txistulariak, dantzariak eta abar egongo dira eta jai bukaturakoan gure lana ere amaituko da. Orain proiektu berriaren emaitza ikustea besterik ez zaigu geratzen. Denaren, jendeak erakutsitako ilusioa ziur proiektu berriari islatuko dela. Bi milioi eta erdiko biztanleriaren artean mila milioiko proiektu aurrera ateratzean herri honek izugarritzko indarra duela erakutsi du. ■

Enplegua sortuko duten enpresei laguntza emango die Udalak

50 milioi pezetara arteko diru laguntza emango da

Asteleheneko batzarrean aurrekontuez gain, beste hainbat gai onartu zituen Udalbatzak.

Besteak beste, idazkari plaza betetzeko oinarriak, aurtengo urterako udal langileen soldata igoera, San Antonio 2 zenbakiko 1. eta 3. pisuen erosketa (3.750.000 pezeta), Bolu kaleko atzealdea garbitu eta bertako sastraka-sasitsa kentzeko lanak arautuko dituzten baldintza pleguak (2.999.600 pezeta) eta Bergaran enplegua sortuko duen industria-jarduera berria diruz laguntzeko deialdia arautzen duten oinarriak. Guztiak aho batez onartu ziren, azken puntu hau izan ezik. Honetan HBk ezezko botoa eman zuen. Lanpostuak sortzeko ekimenak bultzatzeko dirulaguntzak ematearen alde agertu zen oposizioko



Bergaran enplegua sustatzeko ekimena onartu du Udalbatzak. ARTXIBOA

alderdia, baina prozedurarekin bat ez zetozela adierazi zuen Jesus Mari Garitano zinegotziak. "Baldintza pleguak eskaizun konkretu baten neurrira egindakoak ematen dute" adierazi zuen.

Udalak 50 milioi pezeta aurreikusitako aurrekontuetan zeregin honetarako. Hortaz, aukeraturako proiektuari eman dakiokeen dirulaguntza 50 milioi pezeta-ainakoa izango da gehie-

nez. Dirulaguntzaren kopurua ezin izango da sekula izan proiektua martxan jartzeak duen kostoaren %50 baino handiagoa.

Laguntzak jaso ahal izateko, besteak beste, ondorengo baldintzak bete beharko dira: Bergarako udalerrian industria-jarduera berriak jartzea dakartzaten ekimenak izatea eta lehen hiru urtealdietan gutxienez 30 lanpostu finko sortuko duten enpresa sustapenak izatea; industria-jarduera berriak izan behar dute, ez baita nahikoa udalerrian lehendik dauden beste batzuk tokiz aldatzea; sortutako enpresek Bergaran izan beharko dute lantokia eta baita egoitza soziala ere; obra edo eraikuntza proiektuaren exekuzioa aurrean hasi beharko da eta datorren urtean ekin beharko litzaioke jarduerari. **B**



Plataformakoek zorion agurrak bidali dizkiote Jose Mari Etxanizi.

Etxaniz Askatu Plataformak agerraldia egingo du zapatuan

Jose Mari Etxanizek 42 urte bete zituen atzo, eguena, urtarrilak 28 eta zorion agurrak bidali eta bere berekiko elkartasuna adierazteko argazkia atera zuten Errekalde jauregiaren aurrean Etxaniz Askatu Plataformako kideek eta beste hainbat lagunek.

Bestalde, Plataformako kideek agerraldia egingo dute zapatuan 12etan San

Martin plazan. Eukene Garcia eta Iñaki Arenaza preso bergararrek ere zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta euren askatasuna eskatzeko txostena prestatu dute Plataformakoek.

Txostenari atxekimendua adierazi diotenen sinaturak aurkeztuko dira. Iluntzeko 8etan, berriz, mariskadaren zozketa egingo da toki berean.

2.605 milioi pezetako aurrekontua izango du aurten Bergarako Udalak

Inbertsioetara sekula baino gehiago bideratuko da: 731 milioi

Aurtengo udal aurrekontua onartu zuen Udalbatzak astelehenean. Udalak 2.605 milioi pezetako aurrekontua izango du 1999an. Kopuru honi Mizpirualde zaharren egoitzako aurrekontua (261 milioi) eta Udal Euskarategikoa (59 milioi) gehitu behar zaizkio. Aurrekontua gobernu taldearen aldeko botuekin eta HBren ezezkoarekin onartu zen.

Iazkoarekiko aurtengo udal aurrekontuak 200 milioi pezetan egin du gora (%8,2). Iaz, %28,4 igo zen 1997ko aurrekontuarekiko (530 milioi inguru gehiago). Bestalde, inbertsioetara bideratzen den kopurua %19,7 igo da 1998ko aurrekontuarekiko, hau da, iaz baino 120 milioi pezeta inguru gehiago izango ditu aurten Udalak inbertitzeko. Azkenik, %16,90 puntuko



Igerilekuetarako 50 milioi pezeta bideratuko dira aurtengo udal aurrekontuan.

finantza zamari egin beharko dio aurre Udalak. 95etik hona hiru puntutan gutxitzea lortu du gobernuak.

Gastuei dagokienez, gastu korrentek (pertsonal

gastuak, erosketa arruntak, interesak eta transferentzia arruntak) hartzen dute zatirik handiena 1.613 milioi pezetarekin. Inbertsioek ere garrantzi handia izango du-

te aurtengo aurrekontuan. 731 milioi pezeta bideratuko dira inbertsioetara. Esan beharra dago, azken bi urte hauek izan direla legealdia honetan inbertsioetara diru

AURREKONTUA BATZORDEKA

(milioi pezetatan)

Zerbitzu orokorrak: ...	686,721
Pertsonala:	651,946
Hirigintza:	406,721
Auzoak:	209,422
Gizarte Ongizatea: ...	188,197
Kultura:	200,769
Kirolak:	139,117
Hezkuntza-Euskara: ..	122,893

Kirolak, %5,34 Hezkuntza-euskara, %4,72

Gizarte Ongizatea, %7,22


Zerbitzu orokorrak, %26,35

Kultura, %7,70

Auzoak, %8,04

Hirigintza, %15,61

Pertsonala, %26,35



INBERTSIO AIPAGARRIENAK (milioi pezetatan)

Industrialdearen urbanizazioa ...	230,000
Autobusen geltoki berria	82,000
Igerilekuak	50,000
Azoka ingurua	39,100
Kultur lokalak	32,000
Baserri bideak eta kunetak	20,000
Hirigintzarako lursailen erosketa	20,000
Auzoetako ekipamendua	15,000
Herrigunearen zoladura	14,000
San Martzial	12,000
Beste batzuk	217,769
Guztira	731,893

gehien bideratu direnak. Lehen bi urteetan 381 milioi pezeta bideratu ziren inbertsioetara; ia eta aurten, ostera, 1.342 milioi pezeta.

Sarrerei dagokienez, zuzeneko zergen eta tasen bitartez 784 milioi jasotzea aurreikusitako du Udalak. Hala ere, zatirik handiena transferentzia arrunten bidez jasoko du, ia 1.000 milioi.

OPOSIZIOAREN KRITIKAK

Aurtengo udal aurrekontua aurkezterakoan pozik agertu dira alkatea eta gobernu taldeko hiru alderdie-tako ordezkariak. Oposizioak, ostera, kritikak egin dizkio aurrekontuari. "Elektoralismo kutsu nabarmena" duela adierazi zuen Aitor Aranzabal HBko zinegotziak astelehenero Plenoan: "legealdiko lehenengo bi urteetan inbertsio gutxi egin dira eta azkenengo bietan, aldiz, asko igo dira" esan zuen. Bestalde, ez HBko zinegotziak, ez herriko talde askok aurrekontuaren prestatze lanetan jarduteko aukerarik eduki ez izana salatu zuten: "legealdi honetan lan estilo inposatzailea izan da eguneroko ogia" adierazi zuen eta hurrengo legealdian gauzak aldatzea espero dutela esan zuen. Aitor Aranzabalek Lizarra-Garazi-

ko Akordioa ekarri zuen go-gora eta Euskal Herriaren-tzako baldintza demokrati-ko zabalak ekarriko dituzten esparruak jorratu behar direla esan zuen, "Gasteizko gobernuan bezala, Udalean zein Batzar Nagusi eta Foru Aldundian".

INBERTSIOAK

Udalak sekula baino diru gehiago bideratuko du aurten inbertsioetara. 731 milioi pezeta gastatuko dira eta zatirik handiena Industrialdearen urbanizazioak hartuko du, 230 milioi. Halere, badaude beste proiektu batzuk dirutza dextente hartuko dutenak.

AUTOBUS GELTOKI BERRIA

Autobus geltoki berrira-ko 82 milioi pezeta gorde dira. Ibargarai kalean, Area 20 deitzen zaion inguruan, urbanizazio prozesua aurre-rra doan heinean, autobus geltoki zaharra bota egingo da eta Torrekua aurrealde-an, errekarren kontra egingo da geltoki berria. Besteak beste, taberna, kioskoa, komunak e.a. izango ditu, txartelak saltzeko lehiatilaz eta jarlekuez gain.

IGERILEKUAK

Aspaldi dabil Udala Agorrosingo igerilekuei ir-

tenbidea topatu nahian. Gastu handiegia da barruko eta kanpoko piszinak mantentzea eta, bestalde, instalazioak zaharkituta daude. Halere, konponketa sakona egitea gastu handia da eta Udalak ezingo lieke aurre egin dirutza horri. Konponketa faseka egingo da eta urte honetan 50 milioi pezeta bideratuko dira. Ondoren, Diputazioarekin edota beste erakunde batzuekin negoziatu beharko dituzte dirulaguntzak. Lehen fase-an, baliteke kanpoaldeko piszina estaltzeko, jarri eta kentzeko karpa bat ipintzea, piszinak neguan eta udan erabili ahal izateko.

SANTA MARINA INGURUA

Azokaren kanpoaldea urbanizatzeko ia 40 milioi pezeta gorde dira. Santa Marina atzealdea, lehen idi probak eta egiten ziren ingurua, urbanizatu egingo da eta zapatu goizetako tokian tokiko azokako saltzaileentzat lekua egokituko da, baita Zurraderoko merkatu txikiko saltzaileentzat ere.

KULTUR LOKALAK

Kultur lokaletarako 32 milioi pezeta bideratuko dira. Erdia, 16 milioi pezeta inguru, Zabalotegiko aretoa egokitzeko erabiliko da. **B**

Etxeko animaliei buruzko araudia landuko du Udalak

Bergarako Udala

etxeko animaliei buruzko araudia prestatzen ari da. Dagoeneko zirriborro bat prestatuta dago, baina Udalbatzak onartu aurretik ondo eztabaidatuko da batzordeetan eta herriko albaitariekin eta Bedelkarrekin. Bi hilabete barru indarrean jartzea da asmoa.

Azkenaldian asko berba egin da kalean aurki daitezkeen txakur-rrak kaken inguruan eta Udala kontuarekin kezkatuta dago. Prensara igorritako idatzi batean zera irakur daiteke: "Txakurrek ere bizi izan dute baserri-girotik hirietara etortzean pertsonak izan dugun aldaketa. Txakurrak ondo egokitu dira hirietan bizitzeko baldintzetara, baina andra-gizonok berarekin dugun jokabideak, dirudienez, ez du bide bera egin, jabea ez baita arduratzen txakurrak kalean lagatzen dituen zikin-keriaz".

Igerilekuetako taberna hartzeko eskaririk ez

Agorrosingo igerilekuetako taberna errentan hartzeko lehiaketan ez da eskaririk jaso eta Udalak berriz ere egingo du deialdia. Oraingoan, hileko errenta jaitsi egingo du eta aurreko deialdian eskatutako 100.000 pezetaren orde, 75.000 PTA eskatuko dira.

UDAL AURREKONTUA 1999rako	AURREKONTUA URTEZ URTE			
		(milioi pezetatan)		
		Aurrekontua	Finantza zama	Inbertsioak
Udal aurrekontu osoa: 2.927.242.055	1993	1.986,663 (+%06,7)	%21,56	669,244 (-%04,6)
Udala: 2.605.786.393	1994	2.094,482 (+%05,4)	%21,60	718,155 (+%07,3)
Mizpirualde egoitza: 261.898.862	1995	1.928,020 (-%07,9)	%22,00	421,794 (-%41,3)
Udal Euskaltegia: 59.556.800	1996	1.768,775 (-%08,3)	%19,60	195,164 (-%53,7)
	1997	1.876,061 (+%06,1)	%18,90	186,593 (-%04,4)
	1998	2.408,880 (+%28,4)	%18,30	611,185 (+%227,5)
	1999	2.605,786 (+%08,2)	%16,90	731,860 (+%19,7)

Berrigara

353 zenbakia.
1999ko urtarrilaren 29a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

'EGIN' EGITEN ARITU GARA ETA 'GARA' EGINA DUGU

Hiru hilabetetan zehar, zure elkartasuna eta izan duzun konpromisoa, gertu gertutik sentitu izan dugu. Badakigu tonbolan lanean ibili zarela, badakigu kamisetak saldu izan dituzula, badakigu pankartak egin dituzula, badakigu akzioak saldu edota erosi dituzula.

Hiru hilabete hauetan askatasunaren alde lan tin-koa egin duzu, baina garrantzitsuena da, zu bezalako ehundaka pertsona izan ditugula lagun. Batek baino gehiagok kanpaina bukatu dela pentsatuko du eta ez zaio arrazoirik falta, baina, bestalde, denok dakigu askatasunaren aldeko borroka ez duela amaierarik. Dagoeneko eskuartean dastatu dugu gure "Gara" berria, benetan harro senti gintezke egunkari berri honek zenbat partaide duen esaterakoan. Duela hiru hilabete sortu zen proiektu sineskaitz hura, zu bezalako partaideek sinesgarri egin duzue. "Gara" k duen kapitalik handiena zure lana,

ilusioa eta agortu ezin den aurrera egiteko jarrera da.

Pozik sentitzeko arrazoirik ez zaigu falta eta diru bilketa honi behar bezalako bukaera emateko, urtarrilaren 30ean arratsaldeko zazpietan (19:00) San Martin plazan, bergararrok ondo merezita duzuen ekitaldira gonbidatzen zaituztegu.

Baietz Fundazioa

GIDA 99

Gogorarazi nahi dizuegu etxean gidarik jaso ez duzuenoi, nahi baduzue BERRIGARAKO erredakzioan Kultur Etxean eskura dezakezuela. Horretaz gain, datoren urteko gidarako norbaitek zeozer zuzendu nahi badu, deitu dezala BERRIGARAra (943 76 03 97).

Berrigara

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

Sagardotegixen sasoia dala ta, badaukazu joateko ohiturarik? Asko joaten zara?



Angelita Ena

Tabernia daukagu geuk eta lan egin bihar dogu. Lana-gaittik ezin gara nahi beste joan, lehen gehixago joaten giñen. Azken aldiz oin dala hiru urte egon nintzen.




Marta Gonzalez

Ez daukat joateko ohiturarik, behin bakarrik egon naiz, orain dela bost urte-edo. Aurten ez dakit joango naizen, gonbidatzen banaute, akaso [barrel]...



Patxi Puertas

Bai, urtero bospasei aldiz joaten gara. Normalean astebarruan joaten gara, aste-bukaeretan ezin dut eta. Astigarraga aldera jotzen dugu gehienetan. Primeran dago.



Luciano Jauregi

laz ez nintzen joan baiña badaukagu joateko ohituraria, kuadrilliarekin bi edo hiru bider urtean. Aurten ez gara egon baiña joango gara, Usurbil aldera edo...



Noelia Rubio

Ba ez naiz sekula egon. Badaukat joateko gogoag; behin lagunak joan ziren eta ezin izan nintzen joan. Oso ondo jaten dela esaten dute. Ea aurten noan...



Bibiano Barquero

Urtean etxeok pare bat aldiz joateko ohitura daukagu, Astigarraga aldera normalean. Aurten ez gara joan oraindik baina giroa, jana-ria..., dena gustatzen zait.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

GAS INSTALAZIOEN IKUSKAKETA

Aste honetan dei bat baino gehiago jaso dugu gas instalazioak ikuskatzen ari den enpresa baten inguruan. Donostia-ko Revigas S.A. enpresa herriko hainbat etxetan gas instalazioa ikuskatzen dabil eta udaltzainek, herriko iturkinek eta gas instalatzaileek adierazi nahi dute herri-tarrak ez daudela behartuta gas instalazioen ikuskatze lanetan diharduen enpresa horren zerbitzua kontratatzeko.

Dagoeneko, herritar bat baino gehiago sentitu da engainatua derrigorrezkoa ez den ikuskatze hau egin ondoren. Udaltzaingotik gomendatzen da instalazioa ikuskatzea nahi bada, gas instalazioa egin duen enpresari deitzea.

■ ikuspuntua: **manu diaz**

Benetako futbola

Urtebetetik gora neroan hara gerturatu barrik, baina Ipintzara itzultzen naizen bakoitzean denak berdin segitzen duela konturatu naiz. Hogeita hamar bat zaletu, beste talderen bateko entrenatzailearen bat eta hogeita bi mutiko baloiaren atzetik. Domeka goiza zen eta Bergarako infantilek Realaren kontra jokatu zuten.

Josuk, noizbehinka begirada bat ematen zion partiduari eta galdetu besterik ez zuen egiten; nik, ez oso aspaldi bizi izandako pasadizok kontatzen nizkion. Berak ulertzen ez bazidan ere, benetako futbola huraxe zela esan nion.



Atsedenean egunkaria irakurtzeko astia edukinuen eta Jesus Gilen gaineko artikulu luze baten jarri nuen arreta. Epaille batek, Bergaran hasitako epaille batek gainera, kartzelan sartu zuen. Kartzelaratze-agindua hiru delitutan oinarrituta zegoen, hirurak ere Marbellako Udalaren diruak Atletico de Madrid taldera desbideratzearekin zerikusia zutenak.

Egia esan, benetan kasu deigarria da Gilena, bere izaeratik batik bat. Bere taldearen jarraitzaile liskarzaleenak animatzen dituen gizona da, edozein pertsona mehatxatzeko edo bere jokalaria beltzei irain arrazistak egiteko

gauza dena. Baina gizon hau, bere diskurtso populista eta arrisksuari esker, telebistako saio asko eta askotan bainujantzian azaltzeaz gain, alkatetza garrantzitsu bat lortzeko kapaz ere izan da. Eta horrelako jendilajeak gora eta gora egiten duela ikusten dudanean zalantza bat etortzen zait: zer demontre pentsatzen ote du jendeak Gilen aldeko botoa ematen duenean?

Valentinek bigarren zatiari hasiera emateko egindako txistuak berriz ere Ipintzara ekarri ninduen. Azkenean, erraz irabazi zuten Realekoek eta mutikoak, elkarri eskua ematen zioten bitartean, begiak zabal-zabalik donostiarren kamisetei begira. Joño, De Pedro eta Gomezenen modukoak! Hura beste kontu bat zen. Hura futbola zen. **13**

■ asteko menua: **antxonijatetxea**



ANTXONI TXINTXURRETA
Antxonijatetxekoa

Kokotxak saltsa berdean

OSAGIAK (3 lagunentzat)

- Oliba olioa
- Berakatza (3 ale)
- Perrexil txikitua
- Arrain salda apur bat
- Legatz-kokotxak (kilo bat)

PRESTAKETA

- Berakatzak txiki-txiki egin eta buztinezko ontzi batean oliotan berotzen ipini.
- Piskat gorritu arte eduki.
- Sutatik atera eta hozten laga.
- Kokotxak gaztu eta oliotara bota perrexilarekin eta pipermin pittin batekin.
- Su motel-motelean berotzen eduki.
- Hamar minutu inguru, poliki-poliki eragiten sutan eduki, saltsa loditu dadin.
- Sutatik kendu eta mahaira ateratzeko prest.

■ adituen esanetan

Bizkarreko mina

IRUNE AZPEITIA, *Masajista*

Jende askok izaten ditu bizkarreko arazoak eta urte sasoi honetan, hotza dela eta, arazoak areagotu egiten dira. Askotan lanean erabiltzen ditugun postura txarregatik etortzen dira bizkarreko arazoak. Jarrita lan egiten dutenei aulki egokia erabiltzeko, bizkarra jarlekuan ondo finkatzeko eta ukulondoak gorputzetik ahalik eta gertuen izateko gomendatzen zaie.

Zutik ari direnek, berriz, luzatze ariketak egin ditzakete noizean behin eta, ahal izanez gero, lan errepikakorrek saihestu (zenbait enpresatako kateetan hasi dira lan errotazioarekin). Bestalde, pisua altxatzerakoan ere kontuz jokatu

behar da. Bizkarrak gehiegi ez sufritzeko hobe da belaunak makurtu, pisua hartu eta gorputzean finkatu ondoren altxatu.

Bizkarreko mina dugunean lehenengo arazoa nondik datorren aztertu behar dugu aditu baten laguntzarekin. Postura arazoak errez konpondu daitezke baina ornoetako lesioak adibidez tratatzeko nekezagoak dira. Arazo fisiko asko izaten dira bizkarreko minaren jatorria. Dena den, beti ere ariketa fisiko egiteko gomendatzen da, bereziki igeriketa eta luzatze ariketak. Giharrak indartzeko pesa ariketak ere ondo etor daitezke. **B**

■ bergarako gordailutik

BERGARAKO KRISTOA

Imanol Sorondo

Horrela ezagutzen da Estatu osoan San Pedroko elizan dagoen gurutziltzatua: Bergarako Kristoa. Entzute handikoa da arte mailan. Gure irudi hau Montañes eskultorearena zela uste izan bazen ere, orain ziur gaude Juan de Mesak, bere ikasleak, egin zuela.

Irazabaldar Juan Perez bergarra, Sevillan hirian bizi zen, eta bertako Alkabalaren diru kontatzailea zen; gizon erlijioso, diru asko utzi zion kaputxinoen elizari. Gurutziltzatuaren irudi bat nahi eta tratua egin zuen Juan de Mesa irudigilearekin Sevillan 1622.eko apirilaren 6an. Honelakoa nahi zuen: hilzorian, gurutzetua, arantzazko koroa eta iltzeekin, zedro zurean eta margotu gabea. Mila eta hirurehun erreal ordaintzekotan izenpetu zuten idatzia.



Lau urte beranduago elkartu zeuden San Pedroko elizan Argizaindar Migel, apaiz maisua, Aizpurutar Franzisko Perez, alkatea, Irazabaldar Joan Bautista, Sevillan zegoenaren semea eta, beste eliztar eta herritar gehiago. Batzartuek irudia zein tokitan ipini behar zen eztabaidatu ondoren, gaur dagoen tokian uztea erabaki zuten, egokiena iruditu zitzaielako eta gurutziltzatuarenganako debozioa areagotzeko.

Arte irakaslea zen Hernandez Diazek zioenez kristo honen aurpegiak Ebanjelioetako bi gauza esan nahi du: "Aita, zergatik utzi nauzu?" eta "Zure eskuetan uzten dut nire izpiritua". Irakasle berak Mesaren lanik ederrena zela adierazi zuen. Camon y Aznarrek esan zuenarekin bukatuko dugu: "Estatu guztian dau den kristoetatik, hau da espresio beroeneko burua". **B**

Lagunarteko afaria

San Lorentzoko koadrila honek lagunarteko afaria egin zuen joan zen urtarrilaren 16an. Aspalditik ez ziren guztiak biltzen eta, ikusten denez, afaria antolatu zutenen deialdiak izugarriko arrakasta izan zuen. Guztira, **51 lagun** bildu ziren eta San Lorentzoko ermitan argazkia atera ondoren Osintxura joan ziren afaltzera. Espetxean diren **Jabier Lazkano eta Luis Etxeberria** beraien lagunekin ere akordatu ziren San Lorenzo-Madurakoak. Esan bezala, lagunartean primerako giroa izan zuten eta afalostean parranda ederra... Hurrengora arte!!



JUAN ANTONIO UNZURRUNZAGA


Extremadurako migak

Extremadurako migen eguna”k ikusmin dexente piztu zuen domekan. Plazara hurbildutakoei extremadurar jatorria duten “migak” banatu zitzaizkien dastatzeko eta, horrez gain, bestelako produktu tipiko batzuk (ardoa, urdaiazpikoa, pintxo morunonak, goxokiak...) ere saldu ziren **Corazon de Encina** Arrasateko Extremadurako Kultur Zentroak jarritako postuan. Era berean, Extremadurako kantuak eta dantzak ere eskaini zituzten Plazan eta, festa borobiltzeko, **Udal Musika Banda**k Frontoian emandako kontzertuan **Extremadurako bimnoa** jo zuen. Bestalde, baliteke uda aldera Arrasateko andaluziar zentroarekin horrelako beste jaiegun bat antolatzea.



1935eko kintada

1935ean jaiotako bergararrek euren anaiarteko eguna ospatu zuten domekan. Orain dela lau urte, 1995ean, bildu ziren azkenengoz eta guztiak ilusio handiz jaso zuten berriz elkartzeko deialdia. Domekan 43 gizon eta emakume bildu ziren eta primeran bazkaldu ondoren, **Iñaki Quintanilla** soinu-joleak alaitutako dantzaldian ere giro ederra izan zuten. 2000. urtean 65 urte egiten dituztela-eta, orduan ere biltzekotan geratu ziren. Ea ba!!



IPINTZA INSTITUTUA BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

*D eta B eredu
euskaldunak*

*1. zikloa: 12-14 urte
2. zikloa: 14-16 urte*

ETOR ZAITEZTE MATRIKULATZERA GURE IKASTETXERA OTSAILAREN 12ra ARTE

Helbidea: Boni Laskurain 17. Tf. 943 76 20 82 -76 31 42

Ordutegia: goizez, 9:00-13:00; arratsaldez, 15:00-17:00

BALIABIDEAK

- Gela berezia.
 - Teknologia.
 - Informatika.
 - Adierazpen artistikoa.
 - Ikus-entzutekoa.
- Laguntza gelak.
- Elbarrituentzat egokitutako eraikina.
- Aniztasun trataera.

AUKERAKOEN ESKAINTZA ZABALA

- Frantsesa.
- Informatika.
- Tailerrak: Osasuna. Elikadura. Komunikabideak. Matematika. Asmakizunak. Bertsolaritza. Ikerketa. Prentsa tailerra. Eta abar.

ZERBITZUA

- Garraioa doan.
- Jantoki subentzionatua.
- Orientazio departamendua.
- Pedagogia terapeutikoa.

GURE HEZKUNTZ PROIEKTUA:

INTEGRALA, EUSKALDUNA, BATERATUA, ANITZA, DOANEKOA, GURASOEN PARTAIDETZA



kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias Maketazioa: Iñaki Iturbe Publizitatea: Kristina Romero Erredakzio kontseilua: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga Testuen zuzenketak: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu Telefonoa eta faxa: 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 30 zenbakia. 1999ko urtarrilaren 29a.

Kalegoin egongo da Danok Bat

Antzuolako jaietarako gertu egotea espero dute elkarteko kideek

Danok Bat elkarte berria Kalegoi 5 zenbakian egongo dute. Joan zen abuztuan erosi zuten elkartekoek eraikin osoa. Beheko eta lehenengo solairuan elkarte egongo dute eta goiko bi solairuak errentan jarraituko dute.

Hirurogeita zortzi bazkide dira oraingoz Danok Bat elkarte berriko kide izango direnak. Beste hiru lagun ere zerrenda zabaltzeko zain daude.

Abuztuan erosi zieten Zumarragako Albi-sua anai-arrebei Kalegoiko etxea eta ordutik, hasieran eman zituzten 25.000 ptaz gain, hilero 4.000 PTA ordaintzen ari da bazkide bakoitza. Egina dute elkarte izango denaren proiektua eta Udalak berak ere onartu du dagoeneko.

PROIEKTU BERRIA

Jaime Telleriak egin du Danok Bat elkartearen proiektua. Beheko solairuan jangela txikia, sukaldea, bodega eta taberna egingo dituzte. Lehenengo solairuan, berriz, bulegoa, egongela eta komunak.

Beheko solairuan jarriko duten jangela txikia izango dela baieztatu digu Eduardo Jurado elkarteko lehendakariak, baina "goiko solairuan koadrila handientzako lekua egongo da. Kanpoko terraza, lbarrondo alderuntz, itxi egingo dugu eta hori ere jangelatarako aprobetxatu ahal izango dugu".

Ettxeari dagokionez, kanpotik izango duen aldaketarik handiena terraza itxia izango da. Udalak jarri dien baldintza bakarra eraikinak beste aldetik duen balkoiaren egitura bera izatea da. Hori egin ahal izateko, ordea, Udalak Arau Subsidiarioak

aldatu egin beharko ditu; oraingoen arabera, lehenengo solairuaren erabilera arautegitik kanpo dagoelako. Bebaruak ostalaritza eta merkatari-tzarako erabiltzea onartzen da, baina beste solairuak etxebizitzarako bakarrik izendatzen ditu; hortaz, ez litzateke legezkoa izango elkarte egotea lehenengo solairuan, jatetxe jardueraren parkeoa baita". Hori dela eta, Udaleko Gobernu Batzordeak arau subsidiarioak

aldatzea erabaki zuen urtarrilaren 19an, Danok Bat elkartearen onerako.

ETXE ZAHARRAREKIN ZER?

Momentuz elkarteak oraingo lekuan jarraituko du. Lehendakariaren esanetan, dena ondo badoa, herriko jaietarako lokal berriaren egotea espero dute. "Berria egin bitartean zaharrean egotea adostu dugu Udalarekin. Berria egindakoan, berriz, Udalak berak botako du zaharra. ■"



Honela geldituko da elkarte berria. VALEN MOÑUX

■ ■ ■
Beheko solairuan jangela txikia, sukaldea, bodega eta taberna egingo dira.
■ ■ ■

Juan Antonio Lizarralde, misiolaria

“Hango politikuei etxakue in”

Aurreko Kontuolan Anelkar GKE-ren -Gobernuz Kanpoko Erakundearen- sorreraren eta lanaren berri eman genizuen. Han aipatu bezala, Juan Antonio Lizarralde Brasilen egiten ari den lanari laguntzeko sortu da.

Gaur, ordea, eta Juan Antonio Antzuolan dagoela aprobetxatuz, Brasileko gorabeheraz jardutea erabaki dugu. Berarekin izan ginen Iturriotzen eta hantxe kontatu zigun nolakoa den Canudos (Brasil) eta zer nolako bitzta daraman paraje hartan.

Argalduta dagoela diote bere lagunek baina izpirituz sasoi-ko dagoela dio berak. Azkenengo aldiz jaietan izan zen herrian. Beste denboraldi luzeska batean ez zela etorriko aitortu zigun orduan, baina Brasilen bitztea, Canudosen hain zuzen ere, gogorra da eta behartuta herrira itzuli behar izan du osasun arazoekin.

Urteek ez dute barkatzen eta Juan Antonio hori badaki. Dena dela, eta osasunak lagatzen dionean, berriz itzuliko da Brasileko ipar ekialdera, bere Canudos maitera, hango jendeari laguntzera.

Canudos, aipatu bezala, Brasileko ipar ekialdean dago, Bahiako estatuan. Herialde hartako tokirik behartsuena da Canudos, baina hala ere, 2.800 km karratu ditu eta 15.000 bat lagun bizi dira. Ur eskasia da arazorik larriena eta gobernuaren gestio txarrekin areagotu egiten dute bizi duten egoera. Dena dela, Juan Antonioaren ustez, garatzen ari diren proiektuek hango jendea hezitzen laguntzen dute eta honela duten bizimaila, neurri batean, hobetuko dutelakoan dago.



Juan Antonio Canudoseko bizilagunekin.

Zein da elizbarrutiaren lana han?

“Mutiraun” edo auzolanak hartu dau indarra oin. Urtian behin alkartzen gara leku bakoitzetik, dauzkun arazuak azaltzeko. Lur harendako landararik egokixena zein dan ikusi, ahuntz eta antxumien produkziñua zela hobetu... Oin sortu die osasun eta hezkuntzako herri kontseilluak. Eliziak be parte hartzen dogu hor. Politikuak be badare, interes haundixak dare eta, baiña pixka bat gure lana indartu edo kontrolatzeko bidia badago, nahiz eta aukera gutxi izan. Guk ezto guzaz egittia bakarrik nahi, egitte horrekin jentiaeren parte hartzia bultzatu nahi dogu. Beti gabitz billerak egitten, adibidez potzuen leku egokixena erabakitzeko. Hanguak be laguntzen dabe.

Ur falta da arazorik larriena?

Sikute izugarria dago. Bi urte bape euri barik gare eta lan gehixen horrek

emoten dosku: zela aprobetxau dagan ur gutxixa. Gaiñera, hango politikuei etxakue interesatzen gu egitten gabitzena. Ahalegintzen gara jentiaekin agintariekin daukan menpekotasuna apurtzen. Proiektu txikixetan erak parte hartzen dabe. Hori da interesatzen jakuna. Potzuak nun egitten dien be oso ondo aztertuta dago. Adibidez, terrateniente batek saltzeko euki leikien lursail batian egitten baldin badogu, alperrik.

Potzuak teillatuko urak jasotzeko die. 15.000-20.000 litrokuak die, teillatuen arabera. Onena etxe bakoitzak bati eukitzia litzake, baiña... 80 bat potzu egin dittugu. Errekia pasatzen dan lekuan zuluak egitten dittugu eta euri esko egitten badau, urtebeterako ura dauke. 4-5 urtian alde haundixa igarri dogu. Jentia kontzientziatzen hasi da. Leku eskotan beste gauza batzuk landatzen ha

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

HARIZKI

**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

mesatzen gu egitten gabitzena”

si dira. Ikusi dabe horrek ekarri jauen bentajak. Brasileko Ipar Ekialdian gauza batzuk hartu leizkiela ikusi dabe, lurra aberatsa dala, baldintzetara egokitu ezker.

Beharrezkoa da kanpoko laguntza?

Ona da, baiña neurtu egin bihar da. Horregaitik da garrantzitsua ez mugatzia gauzak egittera bakarrik, jentia alperu egitten da. Laguntasuna zela lantzen dan kontuan izan bihar da, bestela menpekotasuna ezta apurtzen. Ur faltarik ez eukitzeko aukeria be badago, Go bienuak nahi izango baleu.

Zein jarrera dute gobernuarekiko?

Ustelkerixa ikaragarrixa dago. Ointxe euki dittugu hauteskundiak eta egon dan gastua –errepublikako presidentiak berriz hautatua izateko euki dabena– kalkulaeziña da. Jentia bihartuta emoten dau botua. “Hautesle kartillia” siñatuta eta eguneratuta izan bihar da. Canudosen aurreko alkatia mediku bakarra zan. Astua, txakurra edo antxumia hautagai ipiñi ezker be berak irabaziko zebala esaten zeban oin bi urte, eta 167 botogatik galdu zeban. Ointxe arte jarraitu dau kargua laga barik!

Zerk erakartzen zaitu han jarraitzeko?

Herrixak. Horretxek emoten dotsu indarra. Garaipen txikixak emaitza handiak emoten dittue, epe motzerako planteaten dienian behintzat.

Antzuolatik iristen zaizun laguntzaz gain besterik jasotzen duzu?

Ez. Alemaniatic kotxia erosteko jasotzen dogu –parrokixa danak eukitzen dabe 5 urtian behin–. Beste herrialdiekin batera alkartzen ganian, auzolanian, alkarri laguntzen jau. Bertako eliztarrak emoten dabena be bai, baiña ezebe eztauke eta ezin dabe emon.

Nolakoa da egun bat Canudosen?

Lehentasuna emoten jau komunidadia bisitatziari, jentia egotiarri, bille rak egittiarri. Askotan egun guztia hortan emoten dogu. Parrokixarako lanetan ez-tittugu gehixegi bultzatzen: herrixan astian meza bat. Askotan premiñia eukitzen dogu planak egitteko, gauzak aztertzeko... Martitzen goiza, esaterako, hortarako izaten dogu eta astelehen goizetarako, ahal bada behintzat, ezto gu konpromisorik hartzen.

Billera asko egin biharra izeten dogu: elizbarrutikuak, herrialde mailla kuak... Beste mailla bateko batzarrak be egitten dittugu. Bi urte eta erdi egon gara “Asociación de los abogados de los

trabajadores rurales” taldiakin lanian. Formaziño juridikua emoten jaue, arazoren bat izan ezker zer egin bihar dabek jakin deixen. Oin beste bat antolatzen gabitz, formaziño politikua lantzeko.

Alfabetatzen lanik egiten duzue?

Bai, baiña helduekin. Pasatzen dana da monitoriak berak be eztaukala irakasteko erretzasunik eta kontzientziaziño lana egitteko zailtasunak egoten die.

Zela baloratuko zenuke Canudosen bizi izan duzuna?

Oso positibua. Ez naiz ezekin damutzen. Neretako aberastasun haundixa izan da. Beti esaten dot seminarixuan asko ikisi nebala, baiña herrixakin gehixago. ■

“Sikute izugarria dago. Bi urte euri barik gare eta lan gehixen horrek emoten dosku”



Honelako putzuak egiten dituzte Canudosen ura hartzeko.



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32



IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Karmen Irizar etxean dagoeneko

Hamar hilabeteren ondoren baldintzapeko askatasunean irten da



Karmen, afarian jasotako opariekin.

Karmen Irizar urtarrilaren 15ean utzi zuten aske, baldintzapeko askatasunean, 10 hilabete kartzelan pasa ondoren. Bi milioiko fidantza ordaindu behar izan du baina ez daki noiz izango duen. Ongietorria urtarrilaren 17an egin zioten eta joan zen eguakitzerako, afaria antolatu zuten Gestorek Jubilatuetan.

Espero zenuen epaiketaren aurretik kaleratzea?

Eguakitzian 16:00etan esan jostanen agente judizialana jun bihar nebala. Lagunei esan najotxanen "epaiketarako eguna edo". Huertasekin juntau eta esan jostanan "Karmen libre gaude". Ez giñunan sinisten. Arazuak izan jittune fidantzia ordaintzeko. Abalak etxone balio eta dirutan entregau bihar izan jone. Ordubittan ordaindu eta illuntziko zortzi eta erdietan trastiak hartu eta kalera.

Zer sentitu zenuen orduan?

Gogorra don urtetzia, norberan kidiak han lagata. Oso maittasun sakona don. Zapatukua estimatzekua don, baiña herrira ailegatzia oso gogorra don. Akordatzen haiz han laga dittunan danak, bidian jausi dienak... Ezin don ulertu barruan egon barik. Eta han be etxone ulertuko -ailegau arte- despedidia.

Zer moduz zaude zu?

Oindio situau barik. Etxekuekin egoteko astirik be etxonat hartu oindio.

Zein egoeratan zaude orain?

Baldintzapeko askatasunian. Siña-

tzera jun bihar non hamabostero. Mugia ezin jonat pasau. Lokalizable egon bihar non, horixe siñatu jonat!

Zela izan zen barrura sartze hura?

Komisariñatik espetxera ailegatzia eskatzen najonan. Esan jostanen handi urtengo zebela gizonak eta alabiak. Pape la firmau eta esan jostanen, "oin beste 28 ordu" eta orduan buruak lana egin jostanan, 3 egun eta inkomunikatuta beste 28 ordu. Enajonan sinisten familia han zeguanik. Laga jostanen gizonan anoraka kalabozuan. Gero entzun najonan alabian eztula. Nik eztula egitten najonan eta berak be bai. Espetxera ailegatzia mundua zabaldu jaten. Pentsu najonan, "behintzet etxat etorriko iñon egurtzera". Kartzelan gure kidiak zain ja eztanan eta hori zoragarrixa don, betiko gelditzen don goguan.

Eta hango egun bat?

Norberak antolau bihar jon ahan dan aguruen pasatzeko. Goizian, paxua, kirola; txapeuan idatzia, irakurtzia...

Zer diozu Euskal Herria bizitzeko den egoerari buruz?

Danon artian lortu bihar dogu eskatzen dogun askatasuna. Gesto minima bat eztabe egin. Lotsagarrixa izen da isletako trasladua. Konfiantzia hartuko jonat ikusten dotenian eren legia -presuei dagokixonian adibidez- betetzen dabela. ■

Patxiren askatasunaren alde

Antzuolako Senideak eta Antzuolako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak, Patxi Olabarriaren askatasuna eskatzeko, Kartzeletako zuzendariari —Angel Yusteri— zuzenduta eskutitz bana banatuko dute herriko etxe gutzietan. Karta horretan norberaren datu pertsonalak eta sinadura eskatzen dituzte, Patxi zigorraren 3/4ak bete dituela eta libre laga dezaten eskatzeko.

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA

BERGARA

☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98



Euskal sukaldaritza


Eguneko menua

Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Mariaren Lagundia Ikastolak ikastetxearen sorreraren bigarren mendeurrena ospatuko du aurten. Urteurrenari daukan garrantzia eman nahi diote eta datorren astean bertan hasiko dira ospakizun ekitaldiak. Bitartean, Manoli Urraren eskutik, ikastetxeak Bergaran izan duen ibilbide historiko ezagutu nahi izan dugu.

Bi mendetako historia

Mariaren Lagundiak bere 200. urteurrena ospatuko du aurten

Martitzenean, otsailak 2, 349 urte beteko dira Juana Lestonnacekoa Mariaren Lagundiaren sortzailea hil zela. 1607ko apirilaren 7an Paulo V.a Aita Santuak (1552-1621) Maria Gure Ama Lagundiaren Ordenaren Institutua onartu zuen. Bordelekoa Elizak onartutako emakumeen hezkuntzarako lehen erlijio institutua izan zen. 1614-1649 urteen bitartean ordena Frantzia zehar hedatu zen eta garai hartan 38 eskola-konbentu zabaldu zi-

ren. Esan bezala, Juana Lestonnacekoa 1650eko otsailaren 2an hil zen. Leon XIII.a Aita Santuak (1810-1903) Mariaren Lagundiko sortzailea beatifikatuko zuen geroago.

Mariaren Lagundiak Bartzelonan sortu zuen Estatuko lehenengo ikastetxea, 1660an. 1687an Tuterara iritsi ziren eta bi ikastetxe hauek erabateko garrantzia izan zuten Mariaren Lagundia Estatuan eta Latinamerikan hedatu ahal izateko. Tuterako ikastetxeak ha-

rreman zuzena izango zuen Bergarako-arekin. Izan ere, Tuterako Mariaren Lagundian Magdalena Goizuetakoa moja donostierra zegoen eta bere ondasunak Bergaran neskatalen hezkuntza publikorako ikastetxe-komentua egin ahal izateko eman zituen.

XVIII. mendean hiru izan ziren Bergaran hezkuntza lanetan aritu ziren erakundeak: jesuitak (Carlos III.ak 1767an kanporatu zituen arte), Errege Mintegia (Euskalerrriaren Adiskideen

1799ko apirilaren 6an nesken hezkuntzarako lehen erlijio institutua sortu zen Bergaran. Egun horretan ospakizun ugari izan zen

Mende honen hasierako argazkian, orduko ikasle talde bat ikusi dezakezue ikastetxe barruko patioan.



Elkarteak 1771n eskuratu zuena) eta, azkenik, nesken heziketaz arduratzen zen "Seminario de Niñas Educandas de la Soledad" izenekoa, Basarten, Mizpilditik gora zegoena. 1750 urtearen inguruan, Soledadeko ikastetxearen antolakuntza eskasa zela eta, Udalak Calahorrako gotzainaren ardurapean lagatzeko asmoa zeukan, Bergaran Tuterako Mariaren Lagundiaren antzeko ikastetxe bat martxan jartzeko. Mariaren Lagundia konpainia hedatzen ari zen orduan eta Magdalena Goizuetakoak begi onez ikusi zuen asmo hori. Umezurtza zenez, bere ondasun guztiak eman zituen proiektua aurrera ateratzeko. Hala ere, ez zuen aukerarik izan berak bultzatutako ikastetxea ezagutzeko, handik gutxira hil zen eta.

Hainbat traba gainditu ondoren, Carlos IV.ak Bergarako Mariaren Lagundiaren sorrera onartu zuen 1793ko abenduaren 27an. Hala ere, 1798ko abendurarte ezin izan ziren sorrera eskriturak sinatu, Konbentzio gerra, Magdalena Goizuetakoaren heriotza eta beste hainbat lege arazo zirela medio. Azkenik, 1799ko apirilaren 6an nesken

hezkuntzarako lehen erlijio institutua sortu zen Bergaran. Egun horretan ospakizun ugari izan zen Bergaran.

Maria Concepcion Saez de Tejada (Jaime de Marichalar-en amaren aurrekoetako bat hain zuzen) izan zen Bergarako Mariaren Lagundiko lehenengo priorea. Tuterako ikastetxetik zortzi lekaime etorri ziren Bergarara. Hasierako

ELIZAREN AURPEGI BERRIZTUA

Bergarako egoitzako lanak amaitu nahirik, Mariaren Lagundiak komunitate erlijiosoari zuzendutako eliza eraikitzeari ekin zion 1818an. Lehenengo harria apirilaren 13an jarri zen. 1820ko Riegoren pronuntziamentuaren ostean, lanak eten egin behar izan ziren egoera politikoa zela eta. Elizaren kontrako neurriek Mariaren Lagundiarengan ere eragin zuzena izan zuten eta lanak 1823an martxan jarri ziren berriz. Soledadeko eliza bota ondoren, bertako materialak aprobetxatu ziren. Azkenik, 1824ko maiatzaren 26an bedeinkatu zuten Mariaren Lagundiko eliza. Birjinaren Bakardadearen irudia (debozio handikoa) kokatu zen bertan. 1856 urterarte beste lan batzuk egin ziren, hala nola kaperauaren etxea edota eliza atzekaldea.

Erretaula nagusia Juan Joseph Velez eskultoreak eta Anselmo Joseph de Rada polikromadoreak eginikoa da. Lehengo antolamenduan Birjinaren Bakardadearen irudiaren ondoan Loiolako San Ignacio, San Frantzisko Xabier, San Luis Gonzaga eta San Estanislao Koskakoaren irudiak zeuden, Gasteizko Alejandro eta Inocencio Baldibieso anaiek

JOSE MANUEL
GONZALEZ VESGA
Historialaria



landutakoak. Elizaren lehen dekorazio honetatik orduko aulkiak (Fermin Labordak 1856an egina) eta Eugenio Azkuek 1856an paretetan eta gangan margotutako hainbat lan gordetzen dira. Azkuek ganga erdia Ama Birjinaren Jasokundearen irudiarekin apaindu zuten, lau aingerurekin inguratuz. Dekorazio hauen zati handi bat 1900ean desagertu egin zen, Leon XIII.a Aita Santuak Juana Lestonnacekoa Mariaren Lagundiko sortzailea beatifikatu zuenean eliza aldatu zenean. Garai hartakoak dira orain berrizitutako aingeruen muralak. Era berean dekorazioa eta erretaularen antolamendua aldatu egiten dira: Ama Birjinaren Bakardadearen ondoan Juana Lestonnacekoa eta Loiolako San Ignacio jartzen dira eta Bartzelonako Masiera y Campins fundizio enpresa ospetsuak pulpituak edota ahots-itzulkinak lantzen ditu. Orain, Mariaren Lagundiak, elementu guzti hauei hasierako edertasuna itzuli nahi izan die. Elizan lan integrala egin da eta burututako lanari esker elizak duen distira erakusten du berriz ere, lehen urteurreneko ospakizunetan bezala.

Eskumako postalean, behealdean irakur daitezkeen, ikasleak oportetan tea hartzen ikus ditzakegu. Argazkia 1920ko hamarkadakoa izan daiteke.



Colegio de R. R. de la Orden de Hijas de Nra Sra Enseñanza, BERGARA.- En el bosque - Un té en vacaciones

hilabeteak Soledadean eman zituzten eta uztail aldera Rocaverdeko Markesaren etxean (gaurko Bidekurutzetako 6. zenbakian) kokatu ziren. Komentu berrira pasatu bitartean bederlatzi urtez bizi izan ziren mojak Bidekurutzetan. Eskola herriko neska guztientzat irekita zegoen eta beste probintzietatik edota atzeritik (Europakoak edota Ameriketakoak) etorritako ikasleak pentsio erregimenean bizi ziren; hezkuntza, oster, doanekoa zen. 1808ko datuen arabera, 13 moja zeuden orduan eta 10 ikasle bizi ziren pentsio erregimenean (gaur egun 20 moja bizi dira komunitatean).

ALDAKETAK MENDEAN ZEHAR

Arazo ekonomikoak tartean (Estatuaren desamortizazio politika edota profesio eta habito berrien debekua), XIX. mendean komunitateak estuasun ugari pasatu zuen. Hala ere, komunitateak bizitasun handia erakutsi zuen eta pertsonal falta zeukaten beste etxe batzuei (San Fernando eta Sanlucarrekoa, Andaluzian) laguntza emateaz gain, Donostia (1868) eta Orduñako (1883) fundazioak sortu ziren. Arazo ekonomikoei aurre egin ahal izateko "adorno" delako klaseak (musika, pintura,

hizkuntzak etab.) kobratzen hasi ziren eta honek ordaintzen zuten ikasleen eta doakoen arteko bereizketa ekarri zuen. Inongo diskriminaziorik egon ez zedin, 1912an erlijiosoen zuzendutako eskolak publikoak izatea onartu zen. Dena den, erabaki honek ez zien mesede handirik ekarri, eskolen mantentura-ko laguntzak guztiz murriztu ziren eta.

Errepublikara garaietan lehen hezkuntzarekin jarraitzeko debekua etorri zen eta 1932. urtean erlijio irakaskuntza ezabatu. Sasoi hartan irakasleek kaleko jantziekin joan behar izaten zuten klaserara. Gerra Zibilean, oster, miliziano zein nazionalen bisita jaso zuen ikastetxeak eta eskola kuarter militarra bihurtu zen garai hartan. Bestalde, 1921eko zatiketaren ostean, Mariaren Lagundiko ordenaren erakunde bateratua sortu zen 1956an.

Mende honetan, hezkuntza sistema aldatu den heinean, aldaketa ugari izan du ikastetxeak. 1970eko hamarkadan fatxada nagusian irakur daitezkeen "Colegio de señoritas" izenburuko erroto- loak zentzua galdu zuen, 1975ean mutilei bertan ikasteko aukera eman baitzitzaizen. Ikastetxeak euskalduntze erronkari ere aurre egin zion, Mariaren Lagundia Ikastola izatera pasatuz. **13**



Manoli Urria 1976tik ari da Bergarako Mariaren Lagundian. Historia ikasketak egin zituzten Deustun eta "El monasterio de la Enseñanza en Bergara" izenburuko tesia landu zuen. Argazkian, Mariaren Lagundiko artxiboan.

OSPAKIZUNAK URTEAN ZEHAR

Martitzenean, otsailaren 2an, ikastetxearen urtebetzearekin, 200. urteurreneko ospakizun ekitaldiak jarriko dira martxan. Goiz eta arratsaldez ikasleek hainbat jarduera izango dute eta arratsaldeko 6etan Mariaren Lagundiko elizan egindako berrikuntza lanen aurkezpen ekitaldia izango da elizan bertan. Manoli Urria Mariaren Lagundia-riaren historialariak hitzaldia eman- go du eta Siglo XXI berriztapen en- presako teknikariak egindako lanen zehaztasunak azalduko dituzte dia- positiben laguntzaz. Mariaren La- gundiko erlijiosoen komunitateari ere omenaldia eskainiko zaie marti- tzenean.

Datorren ostiralean, prestatuta- ko ospakizun programaren aurkezpe- na egingo da arratsaldeko 7etan. Ikastolako abesbatzaren saioaren ondoren, 200. urteurrenaren ingur- ruan eginiko diaporamaren proie- kzioa egingo da. Besteak beste, Se- tien gotzaina, Mari Karmen Garmen- dia Kultura sailburua, Iñazio Oliveri Hezkuntza sailburua, Koruko Aizarna Kultura diputatua, Victoriano Gallas- tegi alkatea, Euskalerrriaren Adiski- deen Elkarteko presidentea edota Begoña Zubizarreta Euskal Herriko Mariaren Lagundiko probintziala izango dira bertan.



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Mo(ko)lotov-La Juve
10:00: Ion Autoak-Patatus
11:00: Ezinleike-Artusamak

Patatus
Ezinleike
Ion Autoak

ZAPATUAN KANPOAN

17:00: HHH-Urrutxurtu
18:00: Matxakategi-Irubide
19:00: Bayer-Tom Cat Argandolas

Irubide
Bayer
Matxakat.

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Amozkibar-SLP
17:00: Guadalest-Arbe Kirolak
18:00: FAC-Sirimiri Eri
19:00: Uve Bikoitza-Usoa
20:00: Bar Canalejas-Pagomendi

Arbe
FAC
U. Bikoitza
Pagomendi
Usoa

DOMEKAN KANPOAN

09:30: Igandekoak-Amilox
10:30: Etengabe-Moskis
11:30: Agiñaspi-Pinturas Bergara
16:00: Jakina Patxaran Team-Ari Ari
17:00: Komando Piperrak-Ufala

Moskis
P. Bergara
Etengabe
K. Piperrak
Jakina PT

argi!

Buya eta Agiñaspi jokatu gabe

Antolaketa Batzordeak izandako gaizki-ulertu baten ondorioz, Buya eta Agiñaspiaren arteko partidua bertan behera geratu zen.

Igandekoak bi puntu gutxiago

Igandekoak taldeak bi puntu gutxiago izango ditu arbitratzera berandu iristeagatik. Bestalde, bigarren itzuliko laugarren jardunaldia jokatu da eta hala eta guztiz, Usoa, Amilox eta HHH taldeek ez dute punturik bildu.

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Azepeixi Jatetxea	28	13
2. Errotagain	23	13
3. A Ze Flaxa Etxagi	23	13
4. Ortz	20	13
5. Pagomendi	19	12
6. Bar Canalejas	16	12
7. Bildurbarek Opel/Lam	15	13
8. Mongatxurak	14	13
9. Jauja OH Zerezos	12	13
10. Shaktale	10	13

2. maila

	P	J
1. Artusamak	12	4
2. FAC	10	4
3. Bayer	9	4
4. Xurruapak	7	4
5. Arbe Kirolak	7	4
6. Tom Cat Argandolas	7	4
7. Sirimiri Eri	4	4
8. Ezinleike	4	4
9. Uve Bikoitza	3	4
10. Guadalest	3	4
11. Txipiron	2	4
12. Usoa	0	4

3. maila

	P	J
1. Moskis	12	4
2. Jakina Patxaran Team	9	3
3. Ari Ari	9	4
4. Urrutxurtu	7	3
5. Irubide Jatetxea	6	3
6. Agirrebeña Jatetxea	4	4
7. Ufala	4	4
8. Etengabe	3	3
9. Komando Piperrak	3	4
10. Matxakategi	1	4
11. HHH	0	4

4. maila

	P	J
1. Mo(ko)lotov	9	9
2. La Juve	9	9
3. Amozkibar	7	7
4. Igandekoak	7	7
5. Pinturas Bergara	7	7
6. Patatus	6	6
7. SLP	3	3
8. Buya	3	3
9. Ion Autoak	2	0
10. Agiñaspi	0	0
11. Amilox	0	0

jokoz kanpo



UNAI APERRIBAI
Shaktale

G. Zer moduz zabiltzate?

E. Oso gaizki. Azkenengo goaz eta gauzak aldatzen ez badira, horrela amaituko dugu.

G. Zer gertatzen da?

E. Ez dakit. Partiduetara nahikoa jende joaten gara baina beste taldeak oso onak dira eta...

G. Mailaz jaiste gustatuko litzaizuke?

E. Lehen mailan jokatzera ondo dago, baina beharbada beste maila batean jokatzera gero, partidu gehiago irabaziko genituzke eta animatuago ibiliko ginatke.

G. Zer postutan jokatzeko duzu?

E. Ez daukagu toki finkorik. Batzuetan aurrean, bestetan atzean...

G. Zer dela eta Shaktale?

E. S.A taldearen abesti bat da. Shaktale izenaren hizki bakoitzak hitz baten esanahia dauka, Siempre Hay Alguien Que Te Amarga La Existencia.

G. 1etik 10era zure taldearen puntuaketa.

E. Giroari dagokionez 9 edo 10. Jokatzeko orduan, 3tik behera.

G. Zer talderen jarraitzailea zara?

E. Realarena.

G. Saikapenean zela geratuko da?

E. Athletic-en aurretik behintzat bai.

gora eta behera



Shaktale eta Patatus

Nahiko petral zebilen Shaktalek bere aurretik doan Jauja OH Zerezos taldeari 11 golez irabazi zion. Hala ere, Shaktalek ezin izan du saikapenean aurrera egitea. Bestalde, Patatus taldeak 2. postuan dagoen La Juve taldeari irabazi zion.



Behaldekokoak hobeto

Saikapenean lehen bi postuetan dauden Errotagain, Xurruapak eta La Juvek gaitasun egin zuten. Hauen artean Errotagainen porrota izan da aipagarriena, azken postuetan dagoen Mongatxurak taldearen kontrako partidua galdutik zuten eta.

emaitzak

Moskis-Komando Piperrak	7-4
La Juve-Patatus	1-3
Xurruapak-FAC	2-4
Guadalest-Bayer	2-4
Artusamak-Uve Bikoitza	6-1
Shaktale-Jauja OH Zerezos	11-1
Usoa-Tom Cat Argandolas	2-3
Irubide Jatetxea-Agirrebeña Jatetxea	7-1
Ari Ari-Etengabe	2-1
Ufala-HHH	3-1
SLP-Pinturas Bergara	2-3
Urrutxurtu-Matxakategi	4-1
Mo(ko)lotov-Igandekoak	3-3
Sirimiri Eri-Ezinleike	5-3
Amozkibar-Ion Autoak	2-3
Errotagain-Mongatxurak	1-1
Arbe Kirolak-Txipiron	4-4
Bar Canalejas-Ortz	5-2
Pagomendi-A Ze Flaxa Etxagi	2-2
Bildurbarek Opel/Lam-Azpeitxi jatetxea	3-4

kronikak


**Futbola
Kadeteek
teknika ezin
hobea**

Lehen mailako kadete mutilek, 3-1 irabazi zuten Lagun Onak taldearen kontra joan zen asteburuan. Bestetan ez bezala, joan zen domeka goizean, kadeteek Agorrosinen jokatzeko aukera izan zuten. Partidu bikaina ikusi zuten bertara gerturatu zirenek.

Lagun Onak taldekoak indartsu zelairatu ziren, baina bergarrek teknika hobea erakutsi zuten eta jokaldi ederrak eginez hiru goleko aldea lortu zuten. Julenek bi gol egin zituen eta Martinezek beste bat. Horrela, Aranburuk entrenatzen dituen mutilek bigarren postuan jarraitzen dute.

Batzutan indartsu egotea baino, teknika ondo erabiltzea garrantzitsuagoa da.


**Eskubaloia
Bigarren
astez
2. postuan**

Joan zen asteburuan, eskubaloiko jubenil mailako mutilek Donibaneko taldeari 24-27 irabazi zioten. Josetxo Muniategiren mutilak lehen postuari eusteko asmatan dabiltzala dirudi. Pasai Donibanen jokatzeko partidua gogorra izan zen.

Lehendabiziko zatian defentsa arazoak izan zituzten eta partidua berdinduta joan zen. Bigarreneira iritsiz bat, lasaitasunez eta poliki-poliki lau eta hiru goleko aldea egitera iritsi ziren. Azkenean, amaierararte eutsi zioten aldeari. Josetxo Muniategiren taldea hiru jokalariren faltan abiatu zen joan zen astean, baina seguruen, asteburu honetan guztiak jokatzeko gertu egongo dira.


**Saskibaloia
Eskutik ihes
egin zien
partiduak**

Jubenil mailako neskek 48-39 galdu zuten Donostia-ko Alde Zaharra taldearen kontra. Bergarrek partidu bikaina egin zuten hasierahasieratik eta lehenengo zatia abantailarekin bukatu zuten, Miriam Olabarriak egindako saskiratzeei esker, besteak beste.

Bigarrenean ere, joko primerakoa izan zen. Horren adierazgarri Joana Rochak egindako hirukoa. Hala ere, azken 10 eta 15 minutuetan, Bergarako bi jokalaririk bosgarren pertsonala egitera iritsi ziren eta ordeko bakarra zuten, taldea lau jokalarirekin gelditu zen. Hori dela eta, bergarrek ezin zian zioten eutsi erritmoari eta azkenean galdu egin zuten.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Sto. Tomas Lizeoa

Infantil maila

Zapatua. 11:00. Ipintza

Bergara-Arrasate

Lehen mailako jubenila

Zapatua. 16:00. Ipintza

Bergara-Urola

Neskek

Zapatua. 17:45. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-**Atl. San Sebastian**

Jubenil mailako mutilak

Zapatua. 12:15. Labegarieta

Bergara-Intxaurren

Jubenil mailako neskek

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-**Atl. San Sebastian**

Kadete mailako neskek

Zapatua. 17:30. M. Lagundia

ESKUBALOIA

Bergara-Zarautz

Jubenil mailako neskek

Zapatua. 16:15. Labegarieta

Bergara-Ormaiztegui

Jubenil mailako mutilak

Zapatua. 17:45. Labegarieta

ARETO FUTBOLA

Bergarako Lagunak-**Aurki K.E**

Neskek

Zapatua. 19:00

Labegarieta

AXEN GARITANO / Pirena lasterketan
"Denetariko txakur nahasketak dihardute"

Axen Garitano joan zen domekan Tramacastillan hasi zen Pirena txakur-leren zeharkaldian dago une honean. 14 egun iraungo dituen txapelketak 15 etapa ditu eta bertan arituko diren musher eta husky txakurak, 500 km egin beharko dituzte. Axenentzat bosgarren urtea da eta oraingoan bederatzi txakur eroan ditu. Erdialdean bukatu nahi du.

G. Zela joan zaizkizu orain arteko probak?

E. Ez ondo eta ez gaizki. Txakur gutxi ekarri ditut. Txakur emeak altan zeuden eta Bergaran utzi behar izan ditut, bestela, bada-kizu zer gertatzen den...

G. Gauzez egin beharreko 3 ibilbide daude, arrakastuagoak dira?

E. Bai. Eguaztenean, egunez 25 km egin genituen eta gauzez 20 km. Elurra sendo bota zuen eta behelainoa nagusitu egin zen. Gaueko beste bi etapak astelehenean eta eguenean dira.

G. Guztira 10 euskaldun zaude eta faboritoen artean Maite Barrietabeñaren izena aipatu da. Zela ikusten duzu?

E. Euskaldun guztiak elkarrekin gabiltza eta oso harreman ona dago gure artean. Maitek, ostera, ez dauka gurekin harremanik. Politena, norberak hezitako txakurrekin lehiatzea da eta Maitek ez du hori egin. Pirenara ekarri dituen txakurak ez di-

ra bereak. Gu geu ez gaude bere jarrerarekin ados.

G. Hainbat arrazatako txakurak erabiltzea onartu da aurten.

E. Bai, baina hala ere, ez nago Alaskakoak sartzearen alde. Aurten, era guztietako nahasketak ikusi ditut.



Goitibeherak: aspaldiko tradizioa berreskuratu nahian

Olabarria eta Gutierrez Euskal Herriko ligan izango dira


Aspaldiko garaiak gogora ekartzean, askori lan-tegiek lagatako piezak erabiliaz egindako goitibeherak eta beroiekin aldapan behera egiten ziren lasterketak etortzen zaizkie burura. Goitibehera lasterketak tradizioz ezagutzen dira eta argi dago hauren jokoa baino zer bait gehiago izan direla.

Duela 20 urte, Arrasaten txapelketa ugari egin zen. Gaur egun ere bada tradizioa indartu nahian dabilen talde bat, Euskal Herriko Goitibehera Elkarte alegia.

Hainbat udalen erabakiz, garai batean herri batzuetan goitibehera lasterketak debekatu egin ziren. Udalen iritziz, errepideak hondatu eta segurtasun baldintza gutxi izaten zenez, istripu asko sortzen ziren eta, horregatik, lasterketak debekatzea erabaki zuten.

EUSKAL HERRIKO III. LIGA ABIAN

Jadanik bi liga antolatu dira Euskal Herrian. Ligak, sei hilabete inguru irauten du eta bertan, aldapan behera ahalik eta bizkorren jaisteko prest dagoen edonork har dezake parte. Horien artean, bi bergarar ditugu, Karlos Gutierrez eta Andoni Olabarria. Karlosek gidari lanak egiten ditu eta Andonik korrikalari edo bultzatzaile lanak. Bergararrak, antolatu diren Euskal Herriko bi ligetan aritu dira. 1998ko Ligaren jardunal-



Olabarria eta Gutierrez bergararrak 4. postuan sailkatu ziren iazko Goitibehera ligan.


diak Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldeko hainbat herritan antolatu ziren; Donostia, Lasarte, Atxondo, Dima, Azkaine, Uztaritze, Arrasate, Oiartzun, Gatzaga, Sara, Galdakao eta Iurretan. "Normalean jardunaldi guztietan izan gara bai iaz eta baita duela bi urte ere. Az-

kenengoan laugarren gelditu ginen sailkapenean. Zale-tasuna aspalditik daukagu. Pena bakarria Bergaran zale-tasun handirik ez dagoela da. Aipatutako herrietan ikusle ugari biltzen da eta gerturatzen direnek primeran pasatzen dute. Bergaran egitea ideia ona izango litzateke". Aurten, apirilean hasiko den ligarako 17 jardunaldi iragarri dira.

handia hartzen dute. 100 kilometro orduko egitera iristen gara gehienetan. Abiadura horrekin norbaitekin topo egiten baduzu... Garai batean bezala, goitibeherak guk geuk egiten ditugu. Guk, gomazko gurpilak erabiltzen ditugu baita badaude errodamendua dituztenak ere. Hauek arriskutsuagoak dira".

NEURRI BEREZIAK

Goitibeherak etxean egindakoak diren arren, txapelketetan parte hartzeko kontrol berezia pasatu behar izaten dute. Kontrolatzen, txapelketako arauetan jasota dauden neurriak betetzen dituzten ala ez aztertzen da. Besteak beste, gurpilaren diametroa 57 zentimetrokoa izan behar da eta goitibeheraren luzera 260 zentimetrokoa. **B**



MODALITATEAK

Lasterketetan bi modalitate ezberdin daude: erlojuaren kontrako jaitsiera eta denok elkarrekin egiten duguna. Noizbehinka, hirugarren bat egiten da. Erlojupeko bi itzuli egin eta biak batuz lortzen den denbora hartzen da kontuan. "Denok batera jaisten garenean batzuetan arriskutsua izaten da. Goitibeherak abiadura

ESKOLA KIROLA

Karteldegia

FUTBOLA

INFANTIL MAILAKO MUTILAK

10:00: Antzuola-M. Lagundia

Zapatuan, Antzuolan. Autobusa

09:00etan, Beheko geltokian

10:30: Almen-Aranzadi

Zapatuan, Almenen. Autobusa

09:30etan, Beheko geltokian

INFANTIL MAILAKO NESKAK

09:30: Aranzadi-S.Fco. Xabier B

Zapatuan, Ipintzan

ESKUBALOIA

BENJAMIN MAILA

10:00: Aranzadi 6-Antzuola A

11:00: M. Lagundia E-Aranzadi 4

12:00: San Martin A-San Martin B

10:00: Aranzadi 5-Aranzadi 1

11:00: Antzuola B-M. Lagundia D

12:00: Aranzadi 2-M. Lagundia B

Zapatuan, Aranzadi Ikastolan

(Atsedena Aranzadi 3

eta M. Lagundia A)

SASKIBALOIA

ALEBIN MAILAKO MUTILAK

09:30: Aranzadi 8-San Martin

09:30: M. Lagundia A-Antzuola

10:30: Aranzadi 13-Aranzadi 12

10:30: M. Lagundia B-Aranzadi 11

11:30: Aranzadi 9-Elgeta

ALEBIN MAILAKO NESKAK

11:30: Aranzadi 14-M. Lagundia

12:30: Antzuola A-Aranzadi 15

12:30: Elgeta-San Martin

Zapatuan, M. Lagundian

Zapatuan 1998ko challenge-ko sari banaketa Osintxun

Deba Garaiko Mankomunitateak antolatuta, zapatuan challengeko sari banaketa izango da Osintxun. Joan zen urtean zehar, hainbat tenis, pala, squash eta frontenis txapelketa jokatu ziren Bergara, Arrasate, Oñati eta Aretxabaletan. Hori dela eta, Mankomunitateak txapelketa hauetan lehendabiziko hiru postuak eskuratu zituztenei sariak ematea erabaki du. Sari horiek challenge izenarekin ezagutzen dira. Sari banaketa, Txuringo jatetxean antolatutako bazkariaren ondoren egingo da. Sari banaketaz gain, Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuko arduradunek, 1999rako iragarrita dagoen txapelketa eta programaren berri emateko asmoa dute.



Patxi Vallejo eta Xabi Albisua, frontenis txapelketako irabazleak.



Muruamendiaraz eta Idiakez San Frantziskora Euskal Federazioarekin

elkar ezagutzea eta euskal pilota bultzatzea da. Iker Muruamendiarazekin batera, Idiakez antzuolarra ere han izango da. Bi pilotariak, otsailaren 18an itzuliko dira Euskal Herrira.

Bestalde, BKEko Aranzeta eta Gutierrezek, Gipuzkoako afizionatuen txapelketako finala jokatuko dute zapatuan Zumarragan, arratsaldeko 16:30etan.

Mexikon izan ondoren, Iker Muruamendiaraz BKEko pilotaria, San Frantziskora abiatuko da otsailaren 8an. Euskal Pilota Federazioak, pilotari batzuk aukeratu eta Ipar Ameriketan hainbat partidu jokatzerako erosten ditu. Bertan, ez da txapelketa berezirik izaten, erakustaldi saioak baizik. Arrazoia nagusienetakoa, bertako euskal-amerikarrek eta euskal pilotariak

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Osintxun pisua salgai. 943 76 49 74.

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Osintxun pisua salgai. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua San Antonion. 943 76 56 20.

Pisu amueblatua Basar-ten. 943 76 32 90.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrietan pisua salgai. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Martzial Agirre. Garaje-arekin. 943 76 00 99.

Fraiskozurin pisua salgai. 943 76 15 40.

Aranerreka. 943 76 50 79.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49 (gauetz)

Apartamentua Arrurri-gan. Igogailuarekin. Berri-berria. 619 802 606.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN EMATEKO

Apartamentu amueblatua Espolioan. 943 76 55 26.

ERRENTAN HARTZEKO

Bi neskak pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua

konpartitzeko Bergaran. 943 76 71 93.

Etxe konpartituan gela bat hartuko nuke. 943 76 21 48.

Aretxabeletako pisu batean logelak alokairuan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

2. GARAJEAK

SALDU

Artzamendi. 943 76 06 25.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Garaje bikoitza S. Lorentzon: 943 76 58 00.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Aranerreka. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

Ibargarai. 943 15 15 81.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 27 22.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

ERRENTAN EMATEKO

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke.

Deitu 943 76 05 17 telefonora.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11 89.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauetz).

4. LANA

ESKAITZAK

Emakumea etxeko plantatzeko eskaintzen da. 943 76 26 73.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Esperientziadun neskak edadetuak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Erizain titulatuak gainak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.



Gozogintzan aintzindari.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Etzeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 81.

Neskak etzeko edo sukaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska batek goizez, haurrak zaindu edota etzeko lanak egingo lituzke. 943 76 72 31.

ESKAERAK

Haurrak zaindu eta etzeko lanetarako neska behar da. 943 76 31 11 (19:00etatik aurrera).

Bere kabuz moldatzen den edadetu bat zaintzeko pertsona behar da astebukaeretan. 943 76 72 25.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresari-tza lehen mailako matematika klaseak ematen ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzako ikasleak

OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Ford Scort 1100. SS-U. Bolante deportiboa opari. 125.000 pezeta. 943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera onean. 943 71 44 45.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Opel Corsa 1500 diesel. SS-AT. 943 78 71 12.

Alfa 33 QV (BI-AM). Ekipatua. 943 76 07 50.

Renault 5 Turbo kotxea salgai. 943 76 38 84.

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer txakurkumeak. Txertatuak. Pedigree-

arekin. 943 85 32 44.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

8. DENETARIK

SALDU

Sega Saturn bideo kontsola salgai. 6 joku. 943 76 40 00 (Mikel).

Peugeot 309 kotzeko aluminiozko haguak salgai. 930 687 635.

Eskiko materiala salgai: Dynastar taula, Tyrolia lotzekoak, Koflach botak (44-45 zka.) eta bastoiak. 943 76 25 54.

"Gernika" ren narruzko koadroa salgai (100x50 cm). Egin berria. Interesatuek Arrano tabernan dute ikusgai.

Tresiloa, bi siloi eta egongelako mahaia prezio oenan salgai. 943 76 31 21 (13:00-15:30).

Bueltako tresilloa (tapi-zatua). Ia berria. Deitu 943 76 12 86 telefonora.

Pentium-multimedia ordenagailua, inpresora eta programak. 907 34 46 58.

Bi oheko gazte logela. 943 78 25 85.

"Mendiz" bizikleta. Shinmano 600. 943 76 38 79.

Armairu klasikoa salgai. 943 76 10 94.

150 litroko termo elektrikoa eta bi akumula-dore. 943 76 44 96.

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Botoidun akordeoia salgai. 943 76 32 95.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.


Kotzeko bi gurpil berri 155/70 haguekin eta orekatuak. 6.500 pta. 943 76 32 31 (Iñaki).

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskati-larena) saltzen ditut. Berriak. 943 76 14 70.

9. HARREMANAK

DEIAK

Egunero, 14:00-15:00ak aldera, Bergararik Zumarragara kotxez joaten den norbaitekin kontaktatu nahi nuke. Gastuak erdibana. 943 76 17 62 (Miren).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MEKANIKARI DOITZAILEA
Ibai ezkeraldea. 15828/2

BI ENKOFRATZAILE
Donostia. 15671/2

ZUZENDARI TEKNIKOA
Deba Behea. 15858/2

TELEFONIA TEKNIKARIA
Zamudio. 16156/2

ATZERAINDUSKAILU-MAKINAREN GIDARIA
Donostia. 16075/1

PROIEKTU ARDURADUNA
Zamudio. 16157/3

FINANTZA ARLOKO KOMERTZIAL TEKNIKARIA
Bilbo. 16150/1

DISEINU TEKNIKARIA
Lea-Artibai. 16185/1

SARE-GESTIORAKO TEKNIKARIA
Zamudio. 16151/2

KOMERTZIAL AHOLKULARIAK
Bilbo. 16221/0

SARE-GESTIOAREN ZENTROKO ARDURADUNA
Zamudio. 16153/1

MEDIKU ESTETIZISTA
Gasteiz. 15967/1

ENKUADERNAZIO MAKINAREN ERABILTZAILEA
Bilbo. 15705/3

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

SUKALDERAKO GARBITZAILEA eta SUKALDARIA behar dira

Tf. 943 76 41 06



Matxiategi Elektragintza C.B.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

Fiskala Lanekoa Kontablea Aseguruak **TG AHOLKULARITZA**

TBG. Ander Alberdi Lete Zuzenbidean lizentziatua

Matxiategi 36, behe. BERGARA Tf. 943 76 90 83/Faxa 943 76 92 04

TRANSBER

Era guztietako kargak Iraulkiak-Grua


Matxiategi 36, behe BERGARA Tf. 943 76 90 83. Faxa 943 76 92 04

Kizkur

Ileapaindegia Estetika Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Irizar 2 ☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

Gotxus nagusitu zen bigarren jardunaldian eta Hik Galdeu-k sailkapen-buru jarraitzen du



Zerok taldekoak ibili ziren finen bigarren jardunaldian.

“Bergara ezagutzen” lehiaketaren bigarren jardunaldia jokatu zen joan zen eguakitzean. Oraingoan, Aranzadi ikastolako Eli eta Zerok, eta Ipintza institutuko Gotxus izan ziren nor baino nor. Azken honek lortu zuen puntu gehien eta sailkapen nagusian bigarren dago 151 punturekin.

Gotxus taldearen nagusitasuna erabatekoa izan zen, hiru probetan puntu gehien lortu zuen taldea izan baitzen. Galderetan 1,10 puntu lortu zituen, Eli taldeak, osterá, 96 eta Zerok-ek 93. Proba grafikoa, berriz, honela geratu ziren: lehenengo, Gotxus (131 puntu); bigarren, Eli (111) eta hirugarren, Zerok (96). Azkenik, kanpoko jokoan hiru taldeek asmatu zuten eta hogeina puntu lortu zituzten. Oraingoan, herriko hiru elkarte gastronomikotara jo behar zuten eta

presidentearen izena, bazkide kopurua eta sorreraren arrazoia galdetu. Bordatxo, Danok Bat eta Umore Ona elkartetara joan behar ziren eta, esan bezala, hiru taldeek bete-betea asmatu zuten.

Gotxus taldea ez beste biak, Eli eta Zerok, aurreko jardunaldiko taldeak baino kaskarrago aritu ziren joan zen eguakitzean eta, honenbestez, sailkapen nagusian azkenengo bi postuetan aurkitzen dira.

Bestalde, entzuleen artean egiten diren galderetan, kamiseta bat izan zuten jokoan Nerea Barrenetxeak eta Ainhoa Etxanizek. Donostiaz gain, San Sebastian eguna Gipuzkoako beste zein herritan ospatzen duten galdetu zion aurkezleak lehenengoari. Bigarrenari, berriz, galdera hau: Maitek 22 urte ditu eta Juantxok 32; zein da bien arteko adin diferentzia? Biek zuzen erantzun zuten eta ondorengo zozketan, zoriak Ne-

rearen alde egin zuen eta berarentzat izan zen kamiseta.

Aste honetan ez da lehiaketarik izango. Gaur, eguakitza, Santo Tomas Aquino eta San Juan Bosco egunak ospatzen dituzte ikasleek eta, horregatik, hirugarren jardunaldia datorren eguakitzera arte atzeratu da.

Oharra: lehen jardunaldian galdera baten erantzunarekin nahastu egin zen epai-mahaia: Eztakit taldeak ustez ondo erantzundako galdera bat, ezegokitzat jo zuen epai-mahaia. Hori zuzentzeko, kultura arloko beste galdera bat egingo zaio Eztakit taldeari datorren astean. Ondo erantzuten badu, 15 puntu lortuko ditu eta, ondorioz, sailkapenean bigarren kokatuko da. Eztakit taldekoek zuzen erantzuten ez badute, erreboteak direla eta, Hik Galdeu eta Jotapurtu taldeek ere puntu gehiago lortzeko aukera izango dute.

BIGARREN JARDUNALDIA

1. Gotxus. 151 puntu
2. Eli. 131 puntu
3. Zerok. 116 puntu

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Hik Galdeu. 169 puntu
2. Gotxus. 151 puntu
3. Eztakit. 142 puntu
4. Jotapurtu. 133 puntu
5. Eli. 131 puntu
6. Zerok. 116 puntu

3. JARDUNALDIA

Petu Petuan (DBH 4, Aranzadi ikastola)
Katamixartsua (DBH 3, M. Lagundia)
Errastiklas (2 HSOL, Aranzadi ikastola)

OLABE

Lurradero 2.
Tf. 943 76 01 26

okindegia - gozategia

Abalsiategi 4.
Tf. 943 76 57 99



Ogia erosten duten
gure bezeroen artean abuzturako
Mediterranioan zeharko bi
lagunendako itsas bidaia
zozketatuko dugu.
Zozketa eguna: ekainaren 30a.

HAUEK ERE BAI...



...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!
izena eman



Bergaran, AKULU AEK euskaltegia. tf., 943 76 05 18

Lam 3 joku automatikoen enpresak 12 urte beteko dittu martxuan eta Karlos Lasak (32 urte) hasieratik dihardu bertan. Gaur egun zortzi langille die eta futboliñak, billarrak, binguak eta makiña txanponjalia dauzke EAE osuan.

Karlos Lasa

Zenbat makiña daukazue?

200 bat.

Garestixena zein?

Birtualak; kotxienak eta motorrenak.

Elektronikuak ala eskuzkuak?

Eskuzkuak nahiago.

Gustoko makiña bat?

Futboliña.

Klasiko bat?

Petakodunak, erretiratuta eduki arren...

Gutxien gustatzen jatzuna?

Makiña txanponjalia.

Jokatzeko nekezena?

Billarra.

Modan dagoena?

Darduak eta photoplay izenekuak.

Darduetan punterixa onekua zara?

Ez onekua, ez txarrekoa.

Zer edadetakuak izaten die abilenak makiñekin?

20 urte ingurukuak.

Ezagutzen dozu ludopatia kasurik?

Zuzenian ez, ez jat sekula tokau.

Zenbat kilometro astian?

1.200 inguru.

Afiziño bat?

Tenisa.

Egin ala begira egon?

Bixak.

Zeinek irabaziko dau Australiako

Opena?

Agassik.

Eta Athletic zenbagarren ligan?

Lehenengo hiruren artian.

Imanol Etxeberria ala Valencia?

Etxeberria.

Sukaldari ona zara?

Bai.

Janari eta edari bat?

Okelia eta garagardua.

Erropa bat?

Bakeruak.

Kolore bat?

Belta.

Animalixarik badaukazu?

Bai, "Trotski" izeneko txakurra.

Zer albiste leittu nahiko ziñuke egunkarixan?

Presuei amnistia emon dotsela.

Zerk jartzen zaittu sutan?

Politikuak.

Egindako azken erregalua?

Play station bat, nire besuetakoari.

Eta jasotako azkena?

Eskiko erropak.

Zelako musikia gustatzen jatzu?

Danetik.

Parrandazalia zara?

Lehen gehixago...

Aurten egon zara sagardotegixetan?

Oraindiko ez, baiña urtero joaten gara pare batera. **B**



GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrekka 13 behea ☎ 943 76 55 00

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA

☎ 943 76 11 99 / 14 47.

Faxa: 943 76 04 77



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK

• APAINKETARAKO PINTURAK

• GARBIKETAK

• ERROTULOAK

Aranerrekka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.



San Martzialeko erromeria, 1950

Sari argitaratu ditugu Erretratu Zaharrean San Martzialgo erromerian ateratako argazkiak. Oraingoan, 18 bat urteko mutil koadrila agertzen zaigu, garrafoi eta guzti. Gehienak Ozaetakoak dira, baina Zubiaurre eta Labegarrietakoak ere badaude. Zubiaurreko Mondragonesa tabernan kartetan jokatzeko-eta biltzen ziren.

Honako hauek dira 1950eko San Martzialean ateratako argazki honetan agertzen diren izenak.

Zutik: Carmelo Mendibil, Bixente Aranza-

bal, Jose Goikoetxea, Esteban Arieteleanizbeaskoa "Uritxa", Jose Maria Lazkano eta Bernardino Agirre.

Makurtuta: Jabier Fernandez de Arriabe, Jesus Garmendia, Santos Arenaza, Francisco Juaristi, Carmelo Martinez, Sebastian Agirre eta Angel Mendibil.

Aurreko ilaran makurtuta: Santos Arieteleanizbeaskoa, Luis Alberdi, Jose Maria Luazaristi eta Francisco Retegi.

Argazkia: Luis Alberdi

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32



MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

ARANZADI IKASTOLAN

MATRIKULAZIO

EPEA ZABALIK

Otsailaren 1etik 12ra arte
Goizez: 8:30-13:00
Arratsaldez: 15:00-18:00



Europako saria ikastolei
ingeles metodologiagatik

2-18

2 urtetik 18ra
ikastetxe berean



Garraio zerbitzua

ARANZADI

IKASTOLA





Eskola Kontseiluko gurasoak

Eskola Kontseiluak

SAN MARTIN HERRI ESKOLA

*bisitatzera
gonbidatzen
zaitu*

EGITARAUA

- Erakusketak
- Jokoak
- Dantzak
- Antzerkiak
- Makilaia tailerra
- Txapa tailerra
- Maskarak
- Bideoak
- Informatika
- Pailazoak

*urtarrilaren 30ean
16:30etatik 19:30etara*

Zatozte eta ezagutu barrutik!



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

Boni Laskurain 25
Telefona: 943 76 21 47

D eredua
D O A N